


# Arrasate

P R E S S

1995eko  
martxoak 31  
271. zenb.

ZUBIZARRETA TALDEAK  
GIPIUZKOA FORBIDEA, 22  
ARRASATE  
0

9




## Judoaren txanda

Euskadiko  
Judo Txapelketa  
Arrasaten

**LOGELETAN** espezializatutako merkatal zentrua

40 urteko esperientzia duten profesionalak sortu eta zuzendutakoa



Dena ETXEMOBELen.  
Batetik, kalitate eta diseinurik handieneko logelak, garantia osoarekin.  
Bestetik, logela merkeen artean, merkeenak.

**BENETAN HARRIGARRIA!**

**LARUNBAT ARRATSALDETAN ZABALIK!**

Araba Etorbidea, 5 (ESKATU Pabilioia, San Andres auzoa) Tfnoa: 79 41 82 ARRASATE

**ALMACENES ARRASATE**  
**ELEKTRAGAILUAK**

ALMACENES ARRASATEN erosita dena abantailak dira!!

**AMETS EGITEA DOAN DA ETA BAITA ERE ZURE OPORRETAKO EGONALDIA**

ALMACENES ARRASATEk zozketa gabe, 2 personendako 7 eguneko egonaldia luxuzko apartamentutan "Canarias" "Balears" edo "Costa del Sol"en

**OPARITZEN DIZU**

50.000 pta. edo gehiagoko balioko erosketagatik eta artikulu batzuetan 35.000 pta. baino gutxiagoko balioko erosketagatik

5 urteko garantia elektrogailuetan emateaz gain opor hobereen grantia.



Kataide  
Poligonoa 3. pab.  
20500 ARRASATE  
Tfnoa: 77 13 52  
Faxa: 77 13 13

- 1- 700 m<sup>2</sup> baino gehiagoko almazena
- 2- Marka hobereenak: FAGOR, ASPES, BOSCH, AEG, PANASONIC, NOKIA, PHILIPS.
- 3- 24 ordu "S.A.T."
- 4- 5 urteko garantia.
- 5- Okasioko aparagailuak.
- 6- Almazeneko prezioak.

**ZATOZ ETA IKUSI**

Ordutegia:  
Astelehenetik ostiralera:  
**9-1 eta 3-8**  
Larunbatak:  
10-1

# Hamar urte luze Busoteko kanposantuan


**H**amar urte luze eta mutu igaro dira Busoteko kanposantuaren izozgai-luan.

Itziño Iturrategiren poesiak dioen antzera, eta berau dagokigun egoerari egokituz:

*galdutako ohol zaharrak dira  
minik gabeko oholak  
arnasarik gabeko arimak.*

Azkenean hamar urte luzetan Busoten zetzaten gorpuak izenak hartuz joan dira poliki-poliki: batzuentzat, lehenengo eta bigarren gorpuak dira; beste batzuentzat Jose Antonio Lasa eta Jose Ignacio Zabalarenak. Guztiontzat, berriz, ziurtasun osoz, tortura gogorak jasandako arnasarik gabeko gorpuak dira Busoteko lur maldatsuetan aurkitutakoak.

Aurkikuntzak lasaitu egingo zituen Lasa eta Zabalaren familiak, seguru. Hamar urte luze ez baitira alperrik igarotzen, jakina. Baina, bestalde, a zer



nolako samintasuna nola hil zituzten jakiteak. Nola eta noren esku hil ziren jakiteak... Urte luze hauetan bagenekien, bai, tortura hor zegoela, eta bagenekien, jakin ere, GAL noren esku zegoen. Halere, guzti hori jakinda ere, fikziozko ametsik gaiztoena baino krudelagoa bilakatu zaigu errealitatea.

Beste hamar bat urte, edo bi bider hamar urte, edo akaso hiru bider hamar urte, edo nork daki zenbat urte igaro beharko diren berriro ere bideari ekiteko. Baina hau honela izan dadin ezinbesteko baldintza bete beharko dugu guztiok: herritarrok, gure aldetik, kasu honen gardentasun osoa eskatu eta exijitu, Lasa eta Zabalaren amek izan duten kementa izanez, hamar urte luzeetan

izaniko kementa, alegia; eta kasua argitu behar dutenen aldetik, jar ditzatela guztiak ahalik eta azkarren justizia egin dadin.

**MATILDE  
SAINZ  
OSINAGA**



**SENDATZAILEA**

*Consuelo Uribealza  
Gomez*

- Masailari magnetista
- Energia-transmisioa
- Gaitz guztien tratamendua eskua gainean ezarritz

Astelehen eta ostegunetan  
15'00etatik 19'00etara

Gazteluondo, 9 behea  
S. F. X. Ikastola parean  
Arrasate ☎: 943-79 22 86

**Memesa**  
**79 42 22**



Aldizkari honek Arrasateko  
Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honek  
Gipuzkoako Foru Aldundiaren  
laguntza jaso du



Aldizkari honek  
Eusko Jaurlaritzako Kultura eta  
Turismo Sailaren laguntza jaso du

• **ARRASATE PRESS** •

**Argitaratzailea:** ARKO (Arrasate Komunikabideak) Azoka kalea, 1. 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)  
Tfnoa: 77 05 65. Faxa: 77 09 40

**Laguntzailea:** Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Beñardo Kortabarria. **Kazetariak:** Maria Agirre, Itxaro Zubillaga, Maider Egües. **Hizkuntz arduraduna:** Arantza Ozaeta. **Publizitatea:** Jasone Mendizabal eta Alberto Garro (77 08 15). **Administrazioa:** Ikerne Altube eta Itsaso Errasti (Tfnoa: 77 08 15). **Maketazioa:** Goio Arana. **Kolaboratzaileak:** Arantza Loidi, Mikel Irizar, Blanca Jauregi, Esther Balanzategi, ASA taldea, Sabin Arrieta, Jon Garai, Joxe Ramon Elortza, Amaia Jauregi-Arraburu, Juan Bautista Agorria, Leintz Bertso eskola, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Xabier Letona, Unai Loidi, Mikel Olabe, Nekane San Miguel, Carmelo Perez, Sorginak, Kofi, Danel Goikolea, Amaia Martiartu, Maite Martinez, Iban Astondoa, Haritz Larrinaga, Cesar Cimiano, Iker Letona, Leire Zubikarai, Koldo Zubizarreta, Joseba Vallés, Agerre, Rafa mungia. **Banaketa arduraduna:** Jabier Ozaeta. © ARRASATE PRESS. Tirada: 5.500. **Lege-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Franko kontzertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati).



ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

**Azaleko argazkia:** Jabier Ozaeta

## Aprendizaia esanguratsua

Aurreko astean zera idazten genuen, ikasleak bere ezagutza eskemak aldarazten dituela, aberastu, dibertsifikatu eta koordinatu; aurretik zekienaren aplikazio berriak, apartazio berriak aurkitzen dituelako. Aprendizaia prozesu autonomoa izan dadila da azken helburua; hau da, haurrak bere kabuz burutu dezan, eta aldi berean, egin duen moduaz jabetu dadin. Horrelako aprendizaiak esanguratsua posible da Haur Hezkuntzan, nahiz eta zenbait atalek zailtasun gehiago eduki. Baina aprendizaiak ez bada esanguratsua, bere interesetatik urruti gelditzen delako, ez du motibaziorik adieraziko haurrarendako. Haur Hezkuntzan zenbait gai berez izan daitezke esanguratsua, hala nola jolasak, ekintzak, esperientziak...

Irakaslearen bitarteko funtzioa, haurri egoera eta esperientziak desberdinak eskaintzean gauzatu da, eguneroko bizitzan abiapuntuz hartuz: egoera horiek ezagunak gertatzen zaizkio haurri eta horietan bere ezagupenak aplikatzen ditu; aldi berean, galderak egiten ditu, elementu berriak eta ezagunak aurkitzen dituelako, eta soluzioak ematen saiatzen da. Zalantzarik gabe, Haur Hezkuntzan azken emaitza baino garrantzitsuagoa da prozesua, zeren eta haur aktibo, jakinmina izango duena lortu nahi da, errealitatearekin, nagusiekin, bere kideekin interakzioan, munduari buruzko irudia eraiki dezan.

Har dezagun adibide sinple bat. Interesgune batetik abiatuko gara: fruituak. Haurrak dakienetik abiatuko gara, bere buruan zalantza, bere ezagupenak aberasteko edo zabaltzeko asmotan. Egoera desberdinak diseinatuz bere ezagupenak aplikatzen lagundu behar diogu, edukin berriak asimilatzen, prozesua ezagutuz eta prozesu hori erpepi-

katzeko eta jabetzeko, zeren eta, haur autonomoa eta bere kasa ikasteko gai izango dena, lortu nahi baitugu. Aprendizaia esanguratsua, eta beronen aplikapena, irakaskuntzan, eta Haur Hezkuntzan bereziki, lan egiten duten profesional askoren estiloan datza. San Andres Herri Eskolan ere horrela egiten dugu lan.

**XABIER ARRUTI  
SAN ANDRES HERRI  
ESKOLAKO ZUZENDARIA**

## Bilbo = Bilbotar Aramaio = ?

Herri-izen guztiei dagokie herritarren izena (espainolez "gentilicio"). Adibidez: Gernika = gernikar; Barkoxe = barkoxtar. Baina herri guztiak ez dira zorte berekoak. Badira batzuk madarikatu samarrak direnak. Horietan bat ARAMAIO. Ez dakit zer gertatzen den herri honekin. Aramaio, dabek ez lemaio. Aramaio jendeari behintzat aspaldion ez damaiogu dago-kion izena (hala uste dut nik behin behin, gero eta sarriago dena zalantzatan jartzeko ohitura hartzen ari banaiz ere).

Martxoaren 17ko ARRASATE PRESSEN, esaterako, haur esaten zaigu Jon Agirre euskal presoari buruz: "Orain Tenerifan dago aramaiotar hau". Eta gauza bera (kasu honetan Santoñan) Jon Arejolaleibari buruzkoan. (Bide batez, goraintziak bioi eta ea noiz ikusten zaituztegun gure artean). Inori ez zaio bururatzten (ala bai? auskalo!) Arra-

satekoei arrasatearrak edo mondragoearrak deitzea (noski, grabeagoa da harako "los oriorratas han tomado la delantera..."). Nik uste gehienok bat etorriko garela honetan: arrasatearrak/mondragoetarrak (ahoz: mondrau(e)tarrak, mundrau(e)tarrak...).

Aramaioren kasuan Euskaltzaindiak berak ere hanka sartu zuelakoan nago "aramaiar" hura proposatu zuenean (ikus Euskal Herriko Udalen Izendegia). Hortaz, aipaturiko aramaiar/aramaiotar horiek ez naute betetzen. Eta bada- go hirugarren bat, azken horren antzekoa: aramaixotar. Hori- xe irakur dezaket Aramaio-ko udalak, Gabriel Jauregi idaz- leari apirilaren 1ean egingo zaion omenaldia dela eta, ate- ra duen gonbidapen-orrian. Euskaraz zein erdaraz, hone- la: Aramaixotarrak (bai, bai, horrelaxe, maiuskula eta guz- ti). Eta, bistan denez, hau ere ez dut maite.

Zein dudan gogoko? Ba, etxean betik entzun dudana (aramaioar) edo Arrese Bei- tia olerkariak zerabilena ("Baña Aramaioar zarrak zein gazteak/Niri eresten jataz dira- la erleak").

Burua ez da gehiegi neka- tu behar pentsatzeko ahozko "Aramaio"ri "Aramaio" for- ma normalizatua badagokio, ahozko "aramaioar" forma- ri "aramaioar" dagokiola eus- kara idatzian. Nori berea, hori da...

**JOSE L. ORMAETXEA**

## Merezi ditugun agintariak....

Aste honetan Arrasateko Hirugarren Munduko taldea den Harreman-ek kanpaina bat antolatu du. Helburua Arrasate herriko jendeak, bai- ta gure agintariak ere, 3. munduko egoera latzak kontzientziaztea da.

Kanpaina honen barruan, pasa den asteartean, mahain- guru bat antolatu zen. Bertan parte hartzeko gonbidapena luzatu zitzairen Arrasateko alderdi politiko guztiei.

Hara hurbildu nintzen ni, gure udal ordezkariak iritziak jakiteko asmoz. Hara nire ezuz- tea bi politikari besterik ikusi ez nituenean: bata EA-koa eta bestea IU-EBkoa. Nire lehe- nengo erreakzioa haserretza izan zen. Nola da posible, hala- ko gai baten aurrean, gonbi- dapen formal bat jaso eta gero, eta gainera hauteskundeak berehala izanda halako erant- zuna ematea?

Bilerak jarraitu zuen, eta han ginenei begiradaxo bat bota nien. Tamalez, oso jende gutxi ginen, eta aurpegi gehie- nak ezagunak: Harreman-eko- ak, eta beste hamar lagun.

Hortik atera daiteken ondo- rioa argia da: Arrasateko herrian gai honek ez duela interesik sortzen, hain zuzen. Hortan, nola behartu ditzake- gu gure agintariak gai hauen- ganako interesa izatera, edota %07aren alde egitera, guk ez badugu egiten?

Azken batean, agintariak gure ordezkariak dira, eta (teo- rian behintzat) gure interesak defendatzeko aukeratzin ditugu.

Egia izango ote da merezi ditugun agintariak ditugula?

**OSKAR J. SAIZ**

## Berrikuntzak

Ohartuko zinetenez aldizkariaren azalaren itxura aldatu egin dugu. Beti bezal asmoa hobetzea izan da, ea gustatzen zaizuen!


Bestalde, joan den asteko alean Aretxabaletako Galartza dorrea XVI. mendean eraiki zela argitaratu bazen ere, hanka sartu genuela aitortu behar, aipatutako dorretxea XIV.ekoa da eta. Makiltxoaren gorabeherak!

# Alkategai izateko zer behar da?



**Rufina Astola**  
**Etxekoandrea**  
**(65 urte)**

Horixe bai dela zaila esateko! Baina nire ustez herrikoa izan behar da, herriko auzoen berri jakin dezan. Gainera, gaztea bada hobe.



**Migel Bolinaga**  
**Jubilatua**  
**(73 urte)**

Politika apur bat ulertu egin behar da, eskola ere dexente eduki behar da. Alkateak pertsona serioa eta formala izan behar du.



**Garbiñe Arana**  
**Etxekoandrea**  
**(43 urte)**

Jakituna eta herrikoa izan behar da. Gainera jendearekin hitzegiten jakin behar du eta iskanbila gutxi sortzen baditu hobe.



**Jose Vicente Rivero**  
**Ikaslea**  
**(20 urte)**

Herriko jendearekin harreman onak izatea. Herrikoa edo kanpokoa izatea berdin da, baina behar bada hobe herrikoa izatea.



**Marilu Mendialdua**  
**Etxekoandrea**  
**(36 urte)**

Herrikoa izan behar da eta herriko gauzen ganean jakin behar du. Orain dagoena modukoa izaten bada, ondo.



**Luis Zubia**  
**Jubilatua**  
**(63 urte)**

Herria ezagutu behar du eta herriko arazoak zeintzuk diren jakin. Lana egiteko gogoia ere beharrezkoa da alkategai izateko.



**Antonia Perez**  
**Etxekoandrea**  
**(58 urte)**

Herriko gauzak ondo eramanen jakitea eta langilea izatea eta horretarako jakina, eskola asko eduki behar du.



**Iban Nuevo**  
**Ikaslea**  
**(16 urte)**

Politikan jakituna eta apur bat gaztea izatea. Soldaduskara joan nahi dutenei papearak herrian jasotzeko aukera emango dien alkatea nahi dut.



**PARDO** estetika zentrua

- DEPILAZIO PROGRESIBOA
- DEPILAZIO ELEKTRIKOA (BLEND METODOA)
- DEPILAZIOA ARGIZARI HOTZ ETA BEROAREKIN
- SOLARIUMA (DUTXAREKIN)

**%10eko**  
deskontua  
Gazte-txartelarekin

AURPEGI ETA GORPUTZERAKO TRATAMENDUAK

- Drainaketa linfatikoa.
- Erreafirmatzailea.
- Elektroeskultura eta ultrasoinuak.
- Antizeluliti murriztailea.
- Mantenimendua.

SENDAGILE-DIETISTAREN KONSULTA

- Dieta personalizatuak, medikuaren kontrol eta aholkuarekin.

Iparagirre enparantza, 4 Behea. Grupo San Juan  
☎: 79 52 17 ARRASATE

**BEHARREZKO TELEFONOAK**

**Eritetxeak**  
 Arrasateko Eskualde-Ospit. ....79 53 00  
 Igoalitorioa .....79 05 00  
 Santa Agedako Ospitalea  
 (gizonak) .....79 39 00  
 (emakumeak) .....79 44 11  
 Buru osasunerako zentrua .....79 90 11

**Gurutze gorria**  
 Bergara .....76 55 76

**DYA**  
 Antzuola .....76 62 91

**Anbulatorioak**  
 Arrasate (Larrialdiak) .....79 13 57  
 (Txanda hartzeko).....77 03 46  
 Oñati .....78 08 52  
 Eskoriatza .....79 98 58  
 Aretxabaleta .....79 74 58  
 Aramaio .....(945) 45 51 16

**Anbulantziak**  
 Gipuzkoako ambulantziak .....45 87 44

**Udaltzaingoa**  
 Oñati .....78 04 11  
 Bergara .....76 14 69  
 Arrasate .....79 14 39  
 Aretxabaleta .....79 10 52  
 Eskoriatza .....79 03 22

**Ertzaintza**  
 Arrasate .....79 71 99

**Suhiltzaileak**  
 Udal taldea .....79 09 00  
 Udal taldeko suhiltzaile burua .....79 20 72  
 Zubillagako Eskualde-Parkea .....78 28 00

**Matxurak**  
 Urak (udal zerbitzua) .....79 09 00  
 Elektrizitatea (Iberduero) .....12 01 62  
 Gasa .....900 40 05 23  
 .....79 78 44  
 .....79 76 78

**Garraioak**  
 Taxiak .....79 12 22  
 P.E.S.A. ....79 14 19

**Hirugarren adinekoentzako zentruak**  
 Iturbide Egoitza .....79 72 11  
 Abaroa jubilatuen egoitza .....79 81 57

**Kontsumitzailearentzako informazioa**  
 Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarteak .....79 87 77  
 KIUB-OMIC .....79 51 55

**Monterrongo liburutegia**  
 Monterron.....77 01 05

**GUARDIAKO FARMAZIAK**

**Ostirala 31**

Azkoaga. Ferrerías kalea.

**Larunbata 1**

Camacho. Bergara.

Español. Iturriotz kalea.

**Igandea 2**

Camacho. Bergara.

Corcuera. Musakola auzoa.

**Astelehena 3**

Eguez eta gauze : Puy. Bergara.

10ak arte. Irizar. Erguin kalea.

**Asteartea 4**

Eguez eta gauze : Cuellar. Bergara.

10ak arte: Ameza. Santamaina auzoa.

**Asteazkena 5**

Eguez eta gauze : Estella. Bergara.

10ak arte: Ruiz. Maala kalea.

**Osteguna 6**

Eguez eta gauze : Rozas. Bergara.

10ak arte: Morales. San Andres auzoa.

**31 OSTIRALA**

• **ZINEA**  
 "Quemado por el sol" 7etan eta 10etan.

• **ROCK JAIALDIA**  
 Los Pichones eta Elkorobarrutia taldeen jaialdia, gaueko 10etan Gure-Leku tabernan. Sarrera dohainik.

• **XABIER MUGURUZAREN KONTZERTUA**  
 Xabier Muguruzaren kontzertua Biona tabernan gaueko 8etan, AEDko Gazteek antolatuta.

**1 LARUNBATA**

• **ZINEA**  
 "Leyendas de pasión" 5etan, 7.30etan eta 10etan.

• **GABRIEL JAUREGIREN MENDEURRENA**  
 A. Gabriel Jauregi Uribarren idazlearen mendurrena dela eta ospakizun-ekitaldia Aramaioko Udaletxean eguerdiko 12etan. Ekitaldian Arabako Foru Aldundiaren laguntzaz argitaratutako Aita Gabriel Jauregi Uribarren (1895-1995) liburua aurkeztuko da.

**IKASTAROAK**

**"Heldutze frogak egiteko prestakuntza" ikastaroa. Astelehenetik ostegunera arratsaldeko 6.30etatik 8.30etara, martxoaren 20an hasita. "Altzariak berreskuratzeko eta berrezartzeko" ikastaroa. Astelehenero arratsaldeko 6.30etatik 9etara. Famili eta Gizarte-Hezketa-rako Zentruak antolatuta.**



**ARGAZKI RALLYA**

*Apirilaren 8an herriko argazki rallya goizeko 10etan Arrasateko plaza nagusian. Gaia: Arrasateko eraikuntz pribatu zein publikoak. Argazki Rallya diapositibekin egingo da.*

**2 IGANDEA**

• **ZINEA**  
 "Leyendas de pasión" 7.30etan eta 10etan.

• **MENDI IRTEERA**  
 Besaide mendizale elkarteak mendi irteera antolatu du. Ibilbidea: Ibañeta-Urkulu-Orbaitzeta. Irteera goizeko 7etan Garibaitik.

• **EUSKAL ESKOLA PUBLIKOEN IV FESTA**  
 Euskal eskola publikoen IV. festa Bilboko Etxebarriako parkean. Arrasateko autobusak irtingo dute goizeko 9.30etan Garibaitik, itzulera ilunkaran.

• **GOIKOBALUREN KONZERTUA**  
 Goikobalu abesbatzaren "Euskaldunon kantak" disko konpaktoaren aurkezpena, Amaia antzokian eguerdiko 12.30etan.

**XIII. ARRASATE - OÑATI LASTERKETA IRUDI-LEHIAKETA**

Maiatzaren 14an LAIXAN elkartearen eskutik eta "Jantzi Kirola Euskaraz" lemapean hirugarren aldiz burutuko da Arrasate - Oñati herri lasterketa eta parte hartzaileek erabiliko duten kamisetarako irudi berria aukeratzeko lehiaketa antolatu da. Egile bakoitzak nahi adina irudi aurkez ditzake; saria 15.000 ptakoa izango da.

**3 ASTELEHENA**

• **ZINEA**  
"Leyendas de pasión" 7etan eta 9.30etan.

• **ARETXABALETA UDAL LIBURUTEGIAREN 30. URTEURRENA**

Arratsaldeko 5etan Enkarni Genuak txontxongiloekin "Herensugea" obra emango du 4tik 10 urte bitarteko umeentzat, liburutegian.

**4 ASTEARTEA**

• **ZINEA**  
"Leyendas de pasión" 7etan eta 9.30etan. (Ikuslearen eguna).

• **HARAN BIZIAREN HITZALDIA**

Gaia: "Urbina - Maltzaga autopistaren egitasmoaren gaur egungo egoera". Hizlaria: Alberto Frias, ekologista eta abokatua. Monterronen arratsaldeko 7etan. Haran Biziak antolatuta.

**5 ASTEAZKENA****6 OSTEGUNA**

• **ZINEA**  
"Cadena perpetua" 7etan eta 9.30etan.

• **DIPLOMA BANAKETA ESKOLA POLITEKNIKOKOAN**

1994ko Industri Injeneru Teknikoen promozioari diplomak banatzeko ekitaldia, Eskola politeknikoko Areto Nagusian arratsaldeko 5.30etan. Ekitaldi akademikoa.

**BESAIDEREN MENDI ESKI IRTEERA**

Besaidek Aspe Aranera mendi-eski irteera antolatu du apirilaren 8-9rako. Irteera goizeko 5etan izango da Garaibaitik apirilaren 8an. Interesatuok apirilaren 4 eta 5an eman dezakezue izena, Besaideko egoitzan arratsaldeko 7.30etatik 8.30etara.

**MURRUKIXOREKIN GREDOSERA ASTE SANTUAN**

Aretxabaletako Murrukixo mendizale elkarteak Gredosera mendi irteera antolatu du Aste Santuetarako, apirilaren 13tik 17ra bitartean. Elolako aterpean egongo dira eta lau irteera egingo dituzte: Almanzor (2.592 metro), La Galana (2.568m), El Casquerazo (2.437m) eta Los Tres Hermanitos (2.336m). Izena ematea Murrukixoko lokalean egin daiteke martxoaren bukaera arte.

**KANTU JAIALDIA AEDren ESKUTIK**

AEDko kultur taldeak kantu jaialdia antolatu du. Baldintzak: Hamabost urtetik gorako edozein pertsonak, taldek zein koadrilak parte har dezake, gehienez zortzi lagunek osaturiko taldeak. Talde edo parte hartzaile bakoitzak bi abesti kantatuko ditu eta gehienez 6 minutuz luza daiteke. Musika estilo librea da. Abestiak euskaraz izan beharko dute. Jaialdian parte hartzeko izen ematea, AEDn egingo da. Inprimaki orriak AEDn jaso daitezke. Jaialdia ekainaren lehendabiziko asteburuan izango da. Izena emateko epea maiatzaren 10era arte dago zabalik.

**EGUNKARIAREN ALDEKO V. KROSA**

Euskaldunon egunkariaren aldeko Antiguako V. herri krosa apirilaren 9an. Krosa goizeko 11etan abiatuko da Antiguako Benta Berri plaza ingurutik eta 10 kmko luzera edukiko du. Inskripzioa, Euskadiko Kutxan egin daiteke, 1.000 pta. ordainduz. Izena emateko epea apirilaren 6a arte egongo da zabalik.

**ALBERT PLA-EN KONTZERTUA**

Albert Pla-en kontzertua apirilaren 7an Amaia antzokiko Hallean gaueko 10.30etan. Sarrera: 300 pta. Arrasateko Udalak antolatuta.

“Errazegi makurtzen gara honelako erasoen aurrean, baina oraingoan zutik jartzeko moduko burla egin digutela uste dugu, eta besterik ez bada garrainsi bederen egin behar dugula esango genuke. Arartekoaz ari gara.

Euskara maite dugun eta geurea dugun guztiok, Markiegiri eta bera izendatu dutenei, honelako erasoekiko desadostasuna eta haserrea erakutsiz eta, euskararekiko errespetoa eskatuz, gutun-erauntsi bat bidaltzea edo honelako zerbait bultzatu behar genukeela uste dugu, eta hori proposatzen dugu”.

**Mattin Amundarain, Bittori Etxeberria.**

Martxoaren 26ko zenbakian

## ARGIA

“Printzipioz gure sistemak Gizarte Asegurantzaren baina eraginkorrago eta merkeago izaten jarraituko du, behintzat aldaketa ekonomiko edo politiko handiak gertatzen ez diren bitartean.

Gure bezelako talde sendo bat, erresponsabilitate zentzua duena, eta gainera TALDEA osatu zuten oinarriekiko leialtasunari eusten dionak edozein erronkari aurre egiteko prest dago. Denboran zehar horrela erakutsi du”.

**Roman Balanzategi,** Lagun Aroko Lehendakaria.

martxoko T.U. Lankide.



“Mundu Bankuak, FMIk eta zenbait herrialde aberatsek, betiko logikak eta errezetak gorai patuz, txiroen eta aberatsen arteko aldea gero eta gehiago zabaltzen duen logika mantentzen dute”.

**Antxon Mendizabal,** Tonino, EHUko irakaslea.

Marxoaren 26ko zenbakian.

## ARGIA

## Zer dela eta antolatu duzue Bideoteka zerbitzua?

**O**rain dela bi edo hiru urte, Udaleko Euskara Batzordekoak euskarazko bideoak erosten hasi ziren euskara bultzatzeko helburuaz. 200 pelikula baino gehiago bildu zituzten eta euren-gana gero eta jende gehiago joaten zenez, konturatu ziren ezin zutela zerbitzu hori behar moduan gestionatu. Horregatik, arduraren hori liburutegira pasatzea erabaki zuten eta guk zerbitzua antolatzeaz gain, euskarazko, gaztelarazko eta ingelesezko beste hainbat bideo erosi genuen.



**Mertxe Perez de Ciriza**  
Liburutegiko arduraduna

Bideotekan gai desberdineko 500 bideo inguru daude, gehienak euskarazkoak, baina badaude erdarazko batzuk ere. Dokumental zientifikoak, marrazki bizidunak, kirolari buruzko bideoak, musikalak eta abar daude. Bideoak bertan ikusi ahal izateko gainera, lau magnetoskopio eta beste lau telebista jarri ditugu baina horretarako beharrezkoa da hamasei urtetik gora izatea eta nortasun agiria eta bazkide txartela eramatea. Lehen egiten zen moduan, gazteagoek ere izango dute bideoak etxera eramateko aukera.

Hasieran, zerbitzua nola doan jakin arte, astean hiru egunez izango da zabalik bideoteka: astelehen, asteazken eta ostirale-tan arratsaldeko 6etatik 8etara. Gure ustez hasieran ez da beharrezkoa egun osoan zabalik egotea eta lehen esan bezala, zein erantzun izango duen ikusi nahi dugu. Baina ondo joango dela uste dugu, ikus-entzutekoen bidez ere ikas daiteke eta.



# LASAGABASTER

**ZURE KONFIDANTZAKO DENDA.**

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE Tfnoa: 79 27 27 / 79 13 55



**Sektei buruz hizketan**

Herriko elkarte eta erakundeetako hainbat ordezkari hurbildu zen ostegunean Udaletxeko Pleno Aretora, sektei buruzko hitzaldia entzute-  
ra. J.M. Jansá sendagilea aritu zen hizketan eta nor-bait sekten eraginpean dagoen jakiteko ezaugarriak eman zituen ezagutzera. Sendagilearen berbetan, egoera txar batean egoteak sekta baten eraginpean erortzeko arriskua areagotzen du.

**EAREN aurkezpena**

Joan den ostiralean udal hauteskundeetarako prestatu duen zerrendaren aurkezpena egin zuen EAK. Aurkezpenean Isabel Gallastegi alkategaia, eta Jose Julian Irizar, Gipuzkoako Diputaziorako hautagaia izan ziren. Gallastegiren esanetan, esperientziadun lagunekin eta ideia berriak ekarriko dituztenekin osatu nahi izan dute EAREN zerrenda.

**Lan istripua**

Martitzenean lan istripua gertatu zen *Amaten* arratsaldeko laurak aldera. Bi gazte andamiotik jausi ziren, gutxi gorabehera zortzi metroko alturatik. Ondorioz, 27 urteko Bautista E.I-k ezkerreko hanka apurtu zuen eta lepoan kolpea hartu zuen. Besteak, 23 urteko Alvaro O.M.-k eskumuturra apurtu zuen.



**Casa del Pueblo-ri eraso**

Aurpegia estalita zuten lau ezezagunek, hainbat kalte eragin zuten Casa del Pueblo tabernan joan den domekan. Gaueko 9.30ak inguruan, lau ezezagunak tabernan sartu eta eskuan zeramaten makilarekin gauzak apurtzen hasi ziren. Lekukoen esanetan, minutu bat baino gutxiago egon ziren tabernan baina tarte horretan telebista, telefonoa, zerbeza ateratzeko gailua eta jolaserako makinak apurtu zituzten. Horrez gain, GAL pintada egin zuten tabernako horma batean.

Arrasateko Ertzantzak bestalde, erasotzaileak zeintzuk izan ziren jakiteko ikerketa hasi du.



**Bizikletan %0,7aren alde**

Udalari aurrekontuen %0,7a hirugarren mundurako zuzen dezala eskatzeko, Harreman taldeak antolatuta bizikleta martxa egin zen joan den domekan. Ekintzan ez zuen jende askok parte hartu, baina antolatzaileen ustez apurka-  
apurka jendea 3. munduaren inguruan sentsibilizatuz doa.

**Etxenike sindikatuei erantzunez**

Guillermo Etxenike, ekonomia diputatua, Arrasatera etorri zen ostegunean prentsaurrekora ematera. Egun batzuk lehenago enpresa berritzaileen zentruari buruz sindikatuak esandakoen gaineko iritzia eman zuen. Sindikatuak azaldu zuten, diputatuak ez du Arrasaten horrelako zentru bat jartzea nahi; Etxenikek, berriz, adierazi zuen, zentrua eraginkorra izan dadin nahikoa dela Gipuzkoan bakarra izatea. Hala ere, nagusi izango den zentru horrek beste herri batzuetan delegazioak izan ditzakela gaineratu zuen diputatuak. Horrez gain, *Saiolanen* lana goraiatu zuen Etxenikek eta Diputazioak azken urteetan 300 miloi baino gehiago eman diela gogoratu zuen.

**JAIOTZAK**

- Jon Oncala Jauregi. Martxoaren 19an.
- Julen Paredes Garai. 17an.
- Danel Sagasta Urrutia. 24an.

**HILDAKOAK**

- Dominica Zubimendi Aranguren. 21ean. 84 urte.
- Julia Zubiaga Parrazar. 21ean. 87 urte.
- Vicente Portilla Pobes. 27an. 87 urte.
- Conrado Rodriguez Fernandez. 26an. 62 urte.
- Aurora Barandiaran Susperregi. 24an. 72 urte.

comercial  
san juan

Garibai, 12  
Tfnoa: 79 13 05

hikein  
MARKO-JARTZEAK

Zerkaosteta, 4  
Tfnoa: 79 13 84

ERAIKUNTZAK

Olarte, 30 etxabea.  
Tfnoa: 79 77 11  
Faxa: 79 77 11  
ARRASATE  
Postakutxa: 118



\* Xabier Retegi

## Aurten ere: "0,7a orain"

**A**urten ere "HARREMAN-Arrasateko Hirugarren Mundu Taldeak" hainbat ekintza antolatu du herri probreekin elkartasunaren aldeko kanpainaren barruan. Mahaingurua, hitzaldia, bizikleta maritza, erakusketa, kamiseta salmenta, etab...

Aurten ere Arrasateko Udaletxearen aurrean argi eta garbi azaldu du bere eskakizuna.

Aurten ere, eskoletan erabiltzeko materiala prestatu eta euskeratu.

Aurten ere, Aretxabaleta, Oñati eta Bergarako taldeekin harremanetan jarri da.

Aurten ere, UNAI proiektuarendako finantzamendua lortzen saiatu da eta Bolibia proiektua aurrera eramaten saiatu da.

Aurten ere, Hegoamerikako artisautza erakusketa antolatu du Arrasaten

Aurten ere, gure taldeak partaide berrien zain egingo da. Lan ugari dago denondako.

Zergatik?

Aurten ere, iparraldeko eta hegoaldeko herrien artean dauden desberdintasunak gero eta sakonagoak eta handiagoak direlako.

Aurten ere, gure indife-

.....

**"Aurten ere, gure taldeak partaide berrien zain egongo da. Lan ugari dago denondako"**

rentzia eta kontsumismoarekin, egoera honen errudun izaten jarraitu dugulako.

Aurten ere, herri mailan eta batez ere Arrasaten denon artean gauza asko egiteko aukera dugula pentsatzen dugulako.

Aurten ere, zuzentasun arazoa dela uste dugulako.

Aurten ere, telebistan ikusten ditugun irudien atzean errealitate latz eta iraunkorra dagoela dakigulako eta egoera honek telebista itxungi egiten dugunean berdin jarraitzen duelako.

Aurten ere, zure laguntza eta ideien beharra dugulako.

Aurten ere, "%0,7a orain"

**HARREMAN  
TALDEKO  
PARTAIDEA**

## USTEAK USTE

### POLITIKARIAK ETA HERRIA

**Politika eta politikiariak.** Azken berriak ezagutu ondoren eta, batez ere, hainbat politikari eta alderdien jarrerak ikusi eta gero, gogo gutxi dut ezer idazteko.

**Hipokrisia eta faltsukeria nagusi.** Herriak dituen benetako arazoak ez ditugu sekula gaindituko martxa honetan, herriaren interesak baztertzen dituztelako gure politikoei: hauteskunde emaitzak, beren alderdien interesak, eskainuak eta boterea, edota konbenientziako aliantzak dira inporta zaizkien arazoak. Hori da, behintzat, hainbat herritarrok ikusten duguna.

**Oso urruti gelditzen dira pakea lortzeko beharrezkoak diren bitartekoak jartzea edo arazo garrantzitsuen barne barneko arazoak aztertzen hastea.**

**Bitartean, herria gero eta urrutiago politikariengandik; horrela erakusten digute inkestek, baita hauteskundeetan izandako partehartzearen datuek ere.**

**Nori errua da urruntasun hori?**

**Ordua da norberaren alderdiaren konbenientziak alde batean utzi eta elkarri hitzegiten hasteko. Beranduegi izan baino lehen. Gai izango al gara besteei entzuteko? Hor dago koxka. Hor gure alderdien pekatu handiena. Ez gaitzatela, behintzat herritarrok kutsatu.**

J. R. ELORZA

**PLUS ULTRA  
taberna**

Maalako Errabala, 17  
ARRASATE  
Tfnoa: 79 20 57

Erdiko kale. 79 19 37

**T  
L  
E  
A**

Ferrerias. 79 87 62



Arrasate Pasealekua 4,  
Tfnoa: 79 14 90  
ARRASATE

**Hilbera  
kafetegia**

Uribarri Etorbidea  
ARRASATE

# Udal aurrekontuen zatirik handiena adostuta

Aurtengo udal aurrekontua dagoeneko adostuta daude eta apirilaren 7ko plenora eramango dira, bertan onartuak izan daitezkeen. Udal aurrekontua dena 2.797 mila milioikoa da, AUKEAren 146 milioikoa eta Iturbide Egoitzarena 175koa.

Xabier Zubizarreta alkateak adierazi zuenez, Gobernu Batzordeko alderdiek adostutako zirriborroa dagoeneko gainontzeko alderdi politikoei ere bidali zaie, aste honetan bertan eta plenora deitu aurretik izan ditzaketen emendakinak aurkez ditzaten.

Plenora eramán daitezkeen aurrekontuen berri zehatz-zehatza ematerik ez dagoen arren, hona hemen, gutxienez, zirriborroaren zenbaki orokorrak:



Beti bezala pertsonal gastua aurrekontuaren zati inportantea da.

Gastuen aurrekontua beste era batera hartuz gero, hau da sailez-sail, horrela banatuko litzateke aurrekontuaren zirriborroa: Gobernu organoak 31 milioi

## Aurrekontu orokorra: 3.118.000 milioi

### Sarrerak

- Zuzeneko zergak .....549 milioi
- Zeharkako zergak .....85 milioi
- Tasak, etab. ....410 milioi
- Transferentzia arruntak 1.233 milioi
- Ondarezko sarrerak .....35 milioi
- Inbertsio errealak inorenganatzea .....50 milioi
- Kapitalaren transferentzia 163 milioi
- Finantz aktiboen aldaketa ..13 milioi
- Maileguak .....259 milioi

### Gastuak

- Pertsonal gastuak .....645 milioi.
- Zerbitzu eta ondasunen erosketak .....501 milioi
- Maileguen interesak .....181 milioi
- Transferentzia arruntak ...557 milioi
- Inbertsioak .....646 milioi
- Kapitalaren transferentzia 110 milioi
- Finantz aktiboen aldaketa ..13 milioi
- Mailegu amortizazioa .....144 milioi

- Kultura eta kirola, .....310 milioi
- Hezkuntza, .....191 milioi
- Osasuna, .....194 milioi
- Hirigintza, .....526 milioi
- Pertsonala, .....261 milioi
- Auzoak, .....72 milioi
- Zerbitzuak, .....683 milioi
- Euskara, .....176 milioi
- Gazteria, .....24 milioi
- Finantz zorra .....325 milioi

## Langabetuendako ikastaroak aukeran

Arrasateko Udalak INE-Mekin elkarlanean, jardingintza ikastaroa antolatuta du Arrasateko eta eskualdeko langabetuendako. Ikastaroa maiatzaren 2an hasiko da eta urriaren 31n bukatu. 400 orduko iraupena izango duen ikastaroa ikasketarik gabeko langabetuei zuzenduta dago eta eskolak gehienbat praktikoa izango dira. Aste-lau aldiz Monterron eta Santa Barbarako parkeetan nahiz Garagartzako mintegian emango dira eskolak eta astean behin Lantegi Eskolan. Hiru milioi aurrekontua izango duen ikastaro hori Parques y Jardines enpresak emango du.

Zaldibar ikastetxean bestalde, lanbide hastapeneko eskolak emateko hitzarmen berria sinatu zen INEM eta Deba Garaiko udalerrien artean. Datozen bi ikasturteetan iturgin, igeltsero, elektrizitatea edo arotz ofizioak ikasteko aukera izango dute 16 eta 17 urte bitarteko gazte langabetuek.

## San Juanen irudia berritu

Udalak 243.000 pta. luzatu ditu, herriko jaietan ateratzen den San Juan Bataiatzailearen irudia berritzeko. Zuzeneko irudia oso egoera txarrean dago eta horregatik, konpontzea eta berritzea erabaki da.

## TTUKUN

Fotokopiak  
Enkuadernazioak  
Koloretan fotokopiak  
Planoen erreproduzioak  
Offseta

Ferreñas, 23 ARRASATE  
Tfnoa: 79 46 62

## MARGOAK JUANMA

Margoak, paperak,  
gotelea e.a.

Agerre kalea, 5 3. ezk.  
Tfnoa: 79 69 17

## UGARTE

Industri  
hornidurak

Arrasate pasealekua  
Tfnoa: 79 83 96 / 79 23 00  
Telefax: 793412

## BASABE JATETXEA

Menu eta afariak  
Boda eta banketeak

Tfnoa: 79 91 84  
ARETXABALETAK



Fagorreko kontseilu orokorrak eta kontseilu sozialak hartu dituzte akordioak.

## Batzar Orokorrari begira hainbat akordio Fagorren

Fagorreko kontseilu orokorrak eta kontseilu sozialak zenbait akordio lortu dute, maiatzean taldeak egingo duen Batzar Orokorrari begira. Gaiak adostuta eramango dira Batzarrera, baina aurrez bazkideek puntu horiek bozkatzeko aukera izango dute enpresa bakoitzean egingo diren batzarretan.

Taldeko langile guztiek igoera edo jeitsiera bera izango dute soldatetan eta enpresa ezberdinetan lan egin arren, antzerako postuan lan egiten dutenek pareko soldata izango dute. Adostutakoaren arabera, soldatak igotzeko urteko KPI-a (kontsumoko prezioen indizea) eta irabaziak hartuko dira kontuan.

KPI-ren igoera urtero gehituko da eta irabaziak izanez gero, hori baino gehiago.

Iaz indarrean sartu zen kooperatiben legeak proposatzen zituen puntu batzuk ez onartzea adostu zuten Fagorreko kontseilu orokorrak eta kontseilu sozialak martxoan egindako bileran. Kooperatiben legeak, adibidez, bazkide kolaboratzaileei botu plurala ematea ahalbidetzen zuen, baina bazkide horiek kapitala eta botua izanda enpresa kontrolatuko luketela uste denez, ez da onartuko. Gainera, errekursoen komitea ere ez da eratuko eta despidoren bat izaten bada, langileak asanblara jotzeko aukera izango du.

## Mankomunitatean aurrekontuak onartu

Aurten 795.944.000 ptako aurrekontua izango du Deba Garaiko Mankomunitateak, iaz baino ia 200 miloi gehiago. Aurrekontuetako 321 miloi Udaletxetik jarriko dituzte (Arrasateko Udalak 122 miloi) eta gainontzekoa beste erakunde batzuetatik jasoko dute.

Diru partida garrantzitsua Eskualdeko Garapenerako Agentziak eramango du, guztira 410 milioi. Izan ere INEMekin bi urterako hitzarmena sinatuko du Garapenerako Agentziak eta erakunde kolaboratzailea izatera pasatuko da. Era horretan, enpresa desberdinekin harremanetan jarrita, baldintza batzuk betetzen dituzten langabetuei lana aurkitzeaz arduratuko da Mankomunitatea. Zaldibar ondoan zentru bat antolatzeke asmoa ere bada, enpresa bat eratu nahi dutenei txoko bat emateko. Zentrua arrisku soldata Garapenerako Agentziak zuzenduko du eta guztira sei hilabeterako laguntza ematen duten 75 kontratu egitea aurrakusi dute.

## JARDINGINTZA IKASTAROA

### Helburua

Jardingintza arloan oinarrizko ezagupen teorikoak eta, batez ere, praktikoak emanez lorategi zein parketan lana egiteko profesionalak prestatze, peoi espezializatu mailan.

**Ikasketarik gabeko emakume zein gizakume langabetuei zuzendua**, Arrasatekoei zein deba garaiko eskualdeko beste herriren batekoei. Taldea 15 partaidez osatuko litzateke.

### Noiz

Egunean 4 orduko ikastaldiak, goizeko 9etatik 13ak arte (400 ordu guztira).

Datak: Maiatzaren 2tik urriaren 31 arte.

### Lan metodologia

- Praktika: Astean 4 egun. Praktika lekuak:
  - Arrasateko jardin publikoak
  - Monterron eta Santa Barbara parkeak
  - Garagartzako mintegia
- Teoria: Astean egun bat.

### Izen emate eta informazioa

Arrasateko INEMeko bulegoan, 1995eko apirilaren 10 arte.

### Antolatzaileak

Arrasateko Udalaren  
Enplegu Zerbitzuak  
eta INEM.

Arrasateko  
Udala



# Ferrerias kaleak parke txiki bat izango du laster

Ferrerias kalean parke txiki bat eraikitzeko obrak hasi ziren Joan den astean. Mendia etxearen atzean libre geratu zen orubean egingo da aisialdirako toki hori.

Parkea egiteko proiektua iazko abenduan onartu zen eta Sustarri enpresari adjudikatu zitzaion obra. Hala ere asmoa aspaldikoa da. Orain dela bi urte inguru Udalak lurzoru hori erosi zuen eta berdegunea egitea aurrikusi zuen. Horregatik iazko aurrekontuetan obra horretarako dirua zuzendu zen, guztira 9.500.000 pta.

Hiru edo lau hilabete barru bukatuko da parkea eta txikia izango da, gutxi gorabehera 200 m<sup>2</sup> ditu orubeak eta. Alde batetik babestuta egongo den berdegunea egingo da eta bertan bi aulki jarriko dira. Lehengo putzua bertan utziko dute, baina ezer gerta ez dadin hesi bat jarriko diote eta baita argia ere.

Alde zaharra berritzeko planen barruan sartuta dago parkearen eraikuntza ere. Orain dela gutxi Mendia etxearen berrikuntza lanak bukatu ziren eta Herriko Plazaren pare



Txoko txukuna geldituko da Ferreriasen.

an dagoen Andikano etxea ere orain dela gutxi hasi ziren konpontzen.

## Irrati tailerra

Udaleko gazteria batzordeak gazteei zuzendutako irrati tailerra antolatu du. Helburuak herriko gazteak irratiara hurbiltzea eta Arrasateko Irratian gazteei gune bat ematea dira besteak beste. Tailerrak batez ere praktikoa izango dira eta irratzaio bat egiteko jakinbeharrak erakutsiko dira.

## Edukiontzia tabernetan

Papera eta beira uzteko edukiontzia tabernetan jarri nahi ditu Deba Garaiko Mankomunitateak. Ekimen hori abian jartzeko, balditzen plegua kaleratu du Mankomunitateak eta proiektu onena aurkezten duen enpresari adjudikatuko zaio lanai. Gutxi gorabehera maiatzean "atez-ateko" zerbitzu berriari hasiera ematea espero da.



# SIKOL

*Lentzeria eta kortseterian  
espezialistak*

Zatoz benetako

**Wonderbra®**  
probatzera!!

Olarte, 31  
Tfnoa: 79 89 32  
ARRASATE



**34an jaiotako kintoek** egun berezia izan zuten zapatuan. Eguerdiko ordu batean parro- kian elkartu ziren kintako hildakoen alde meza entzuteko. Meza bukatu eta txikiteoa egin eta gero, Udalpe elkartean izan zuten bazkaria. Ederto jan eta edan ondoren kontu kontari ibili ziren gustora.



**Fax Darlas eta Pantxo Belin**, Arrangoitzeko Uda-lekuko begiraleak dira eta Arrasatera etorri ziren Txatxilipurdikoekin uda- rako uda-lekuak prestatzeko asmoz. Gu ere bisitatu gintuzten eta argazki bat ateratzeko kameraren aurrean ipini genituen .



**San Frantzisko Xabier ikastolako 8. mailako ikasleak Pasaian** egon ziren bisitari. Goizean portua eta faroa bisitatu zituzten eta arratsaldean

uretako txalekoa jarri eta San Juanera doan txapulan ibili ziren. Primeran pasa zuten eguna eta errepika- tzeko irrikan daudela jakin izan dugu.

**HIES EKIMENA**

Astelehen, astearte eta ostiral  
5etatik 8etara.

Tfnoa: 79 26 99

**JUAN IGNACIO MONTIANO Dk.**

**PEDIATRA**

"San Martin Osasundegia"  
Ramón M<sup>a</sup> Lili, 2


BERGARA

Tfnoa: 76 59 39 Faxa: 76 25 72

**"EDERTU"**  
ileapaindegia



San Andres auzoa  
Tfnoa: 79 04 28



**Mondragoetar askok eta askok gogoratuko duzue argazkiko kamioia. Jose Irazolak orain 28 urte erosi zuen eta makina bat buelta eman du Arrasate eta Deba Bailaran, gaseosa, esnea, eta beste zenbait produktu banatzen. Aurten, Jose jubilatutako egin da eta, berak beste neke izango zuelakoan, kamioia ere jubilatutako egin du. Horrela bada, hemendik aurrera ezin izango da La Casera kamioia kalean gora kalean behera ikusi. Lastima!**



### IZEN PROPIOAK

● ARKOk Zuzendaritza Batzordeko partaide berriak hauek dira: **Arantza Ozaeta, Xabier Etxebarria, Juan Jose Zabarte, Iñaki Bordes** eta **Iñigo Andola**. Bajak, berriz, Pako Altube, Iñaki Aranburu, Xabier Diez, Lurdes Nafarrete eta Lauri Zabala.

● **Amaia Balda Etxarte**, 24 urte, donostiarra, izango da Udaleko Euskararen hitzarmeneko teknikari berria. Euskal filologia ikasi du Amaiak eta Josean Eizmendi ordezkatu du, azken honek Oiartzungo Udaletxean lanpostua lortu du eta.



**Matias Prats** kazetaria eta Pedro Subijana sukaldaria Arrasaten izan dira aste honetan. Bi pertsonaia ezagun hauek Fagor Elektratresnak egin duen ekintza berezi batean hartu dute parte. Fagorrekoak Estatuko bost mila banatzaileekin harremanetan jarri dira satellite bidez eta Matias Prats eta Subijanak, programa horietan hartu dute parte.

**PUB HAIZEA**

arrasate

*Epelde*




- Estudioa
- Ezkontzako erreportaiak
- Bideoa
- Argazkiak

Iturriotz, 24 Maixu Arano, 8  
Tfnoa: 79 19 71 Tfnoa: 79 26 23




Bezeroaren liluragarri

# OPEL VECTRA



**AIRBAG - ALBOETAN BARRA BABESGARRIAK - SEGURTASUN-UHAL AKTIBOAK - ECOTEC MOTOREA**

**OPEL VECTRA MERIT BERRIA, BERE PREZIOA MERITO HUTSA DA.**

**ZURE ZAIN GAUDE OPEL** 

**TAKOLO**  
A U T O A K

Araba Etorbidea, 3 (ESKATU pabilioia)  
Tfnoa: 79 05 86 **ARRASATE**  
Zerbitzu Ofiziala ARRASATEN

**TALLERES**  
**OLA**

Olabarrena auzoa, z/g.  
Tfnoak: 76 33 44 / 45 / 46.  
**BERGARA** (Gipuzkoa)

**OPEL BANATZAILE OFIZIALAK, ESPERIENTZIAZ ONENA**



Futbito 94-95

ZALDIBAIKO Txapelketa

Babesleak: JMA, Kajoj taberna eta Arrasate Kirolak



## Epailleek errespetu gehiago eskatzen dute

Bigarren fasea hasi zenetik antolakuntzakoek aukeratzen dituzte partiduetako epailleak eta azken bolada honetan batzuk eta besteak kezkatuta daude jendearen jarrera txarragatik. Epaille lanetan borondatez eta gustatzen zaielako ari direnek ez dute onartzen jendearen jarrera "partiduetan denetik deitzen digute eta kalean ere pasatu egiten dira gurekin. Arazoa noraino heldu den ikusita, kezkatuta gaude". Arazoa benetan urruti heldu da eta, esatebaterako, Aizkorak utzi egin dio epaitzeari gehiago

aguantatzeko gertu ez dagoelako. Epailleek, onartu egiten dute akatsak izaten dituztela, baina intentzio txar barik egindakoak izaten direla diote. Antolatzaileak, bestalde, epailen alde dardela esan digute eta epaille eta jokalarien arteko arazoak baretzen ez badira, iskanbila sortzen duten taldeak txapelketatik kanpo uzteko erabakia har dezaketela.

Epaille, jokalaria eta jarraitzaileen arteko harremanak bero-bero daude eta guztien borondatez baino ez da arazoa konponduko.



**Felipe**  
**Arrizabalaga**  
**AROSZTEGIA**

- SUKALDE-ALTZARIAK
- SARRERAKO ETA BARRURAKO ATEAK
- ARMAIRU ENPOTRATUAK ATE KORRIGARRIEKIN

Legarre pabiloia, ARRASATE Tfnoa: 79 22 76

# Bigarren fasea

A taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
ARGI IBILI	3	3	0	0	16	4	6
PERRAHOTSA	3	2	1	0	12	9	5
HIREI	3	1	1	1	14	13	3
EQUUS BTR	3	1	1	1	11	11	3
PEPELUS	3	0	2	1	11	14	2
ARTZANKOS UDALAITZ	3	0	2	1	9	12	2
ORLANDO PIRATAS	3	1	0	2	9	14	2
LOS DIMY	3	0	1	2	8	13	1

B taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
LOS HEREDIA	3	2	1	0	20	10	5
PUB PEOPLE	3	2	1	0	17	12	5
AC SURCOS	3	2	0	1	23	10	4
IRATI STS	3	1	0	2	12	12	2
MSM INGENIER	3	1	0	2	11	12	2
D. A. IRIZTU	3	1	0	2	9	21	2
LORATEGI POTROAK	3	1	0	2	9	13	2
SOKOAKOAK	3	1	0	2	8	19	2

D taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
FOSFOROS	3	3	0	0	20	6	6
CER. LEITZ	3	2	1	0	13	7	5
ZULOAK	3	2	0	1	15	6	4
PETROLEROS	3	1	1	1	5	9	3
NUEVO TABERNA	3	1	0	2	6	13	2
TOTEM	3	1	0	2	7	10	2
BUKANAK	3	1	0	2	13	21	2
OJO AVISORE	3	0	0	3	4	14	0


E taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
MIKELOS	3	3	0	0	12	1	6
SUM. UGARTE	3	2	1	0	13	4	5
ADELAIDA HAIZEA	3	2	1	0	9	3	5
ZOTZ	3	1	2	0	11	7	4
TRIKITI	3	0	2	1	3	6	2
KE OXTIAS	3	0	1	2	6	16	1
AUTOS MURU	3	0	1	2	4	11	1
GANBELAS	3	0	0	3	2	12	0

## Uribe auzoako Futbito Txapelketa

A Taldea	B Taldea	D Taldea	E Taldea	F Taldea
Exca. Lete .....4	Blackburn .....4	Los Dimy .....4	Kamasutra .....4	Salenco y K. ....4
Berza Mutante II .....4	Eztanda egin arte .....4	Zigarrola .....4	The Barrio .....4	Lautherbrunnen .....4
Leya .....4	Arrasate Kirolak .....4	Uglys Txinato .....3	Borroç'n Roll Prom. 4	Corazon de Encina...2
Borroç'n Roll .....2	Jo ta Akabau .....4	Balon Rojo .....3	Dribling .....3	Gallinero .....2
A las 9 no .....2	Trotabares .....2	Ke Oxtias .....2	Koka Juniors .....3	Txeyenex .....2
DKB .....2	Tronkoteak .....2	Arrasate Zoo .....2	Ganbelas .....2	Iluna Taberna .....2
Munar Txiki .....1	Amaral .....0	No Comment .....2	Hirei .....0	Berango Suk. ....2
La Banda .....1	Pier No Doy Una .....0	Garajauke .....0	Lo + X .....0	Bodega Anboto .....1
Holocausto Kanibal 0	Orkatz .....0	Equus BTR .....0	Extintors Foruen .....0	Elisabeth .....1
CD Arko .....0	Los Intocables .....0	Astoen Bila .....0	Telleria. A. ....0	Euskal Suporters .....0
Energizer .....0	Baneuko .....0	Eman Bidea .....0	Kurtze Txiki .....0	Sukar .....0

**Egunkaria** ren aldeko

**ANTIGUAKO**  
**V. KROS**  
 APIRILAK  
  
 goizeko 11etan  
**HERRIKOIA**



ANTOLATZAILE



**BELARRIRA**



Lau partidu gogor jokatuko dira astebukaera honetan: Zuloak eta Petrolerosek zapa-tuan goizeko 10etan neurtuko dituzte indarrak. AC Surcos eta Lorategi Potroaken artekoa eguerdiko 12etan jokatuko da eta, itxura batean, interesgarria dirudi. Domekan, oster, goizeko 11etan Adelaida Haizea eta Mikelos izango dira aurrez aurre eta 12etan B taldeko 4. sailkatuak Irati STSk , Los Heredia liderraren kontra neurtuko ditu indarrak.

◆ **Tangana**

Sokoakoak eta Lorategi Potroaken arteko partidua tangana bihurtu zen eta bedertziz jokalaria bi minututarako kanporatu zituzten.

◆ **Epaileak**

Laugarren jardunaldian epaile lanetan Canacho, Andoni, Carabias, Perez eta antolakuntzakoak ibiliko dira.

◆ **Uribe Auzoa Txapelketa**

DKB, Pier Nodoyuna, Los Dimy, Dribling eta Elisabeth taldeek astebukaera honetan jokatu behar den jardunaldian atsedena izango dute. Uribe Auzoa txapelketan, bestalde, 223 gol sartu dira. 15 gol Ke Oxtias eta Salenco y konpañiak sartu dituzte talde goleatzailenak izanik.

◆ **Zuzenketa**

Andoni Garro Cerveceria Leintz taldeko atezainak izugarrizko gola sartu zuela esan genizuen aurreko zembakian, baina Andoni Garro ez da Cerveceria Leintzekoa, Petroleros taldeko atezaina baizik. Hanka sartzen denean atera egin behar da. Bai horixe!

**EMAITZAK**

**A taldea**

Argi Ibili 4 - Pepelus  
Equis BTR 5 - Orlando Piratas 4  
Hirei 6 - Los Dimy 3  
Artzankos Udalaiz 5 - Perrahotsa 5

**B taldea**

Irati STS 4 - D.A Iriztu 6  
AC Surcos 4 - MSM Ingenier 7  
Los Heredia 5 - Pub People 5  
Lorategi Potroak 2 - Sokoakoak 3

**D Taldea**

Nuevo Taberna 6 - Bukanak 8  
Fosforos 4 - Zuloak 3  
Cer. Leintz 7 - Totem 2  
Ojo Avisore 1 - Petroleros 2

**E Taldea**

Adelaida Haizea 1 - Autos Muru 1  
S. Ugarte 1 - Trikiti 1  
Mikelos 3 - Ganbelas 0  
Zotz 5 - Ke Oxtias 5



**Parques  
y Jardines**

**Parke eta lorategien sorkuntza.**

**Larazaintzako mantenimendua ora har.**

**Landare-birsorkuntza hidroereintzaz.**



Casa-Torre kalea. Tfnoa: (94) 681 90 82 ABADIÑO (Bizkaia)

**ASTEBURU HONETAN**

**LARUNBATA 1**

**Zaldibar**

8.50	Argi Ibili - Hirei
10.00	Zuloak - Petroleros
11.00	Orlando Piratas - Perrahotsa
12.00	AC Surcos - Lorategi Potroak
13.00	MSM Ingenier - Sokoakoak
14.00	Sum. Ugarte - Zotz
15.00	D.A. Iriztu - Pub People
16.00	Trikiti - Ke Oxtias
17.00	Fosforos - Ojo Avisore
18.00	Bukanak - Totem
19.00	Autos Muru - Ganbelas

**IGANDEA 2**

**Zaldibar**

8.50	Equs BTR - Artzankos Udalaiz
10.00	Nuevo Taberna - Cer. Leintz
11.00	Adelaida Haizea - Mikelos
12.00	Irati STS - Los Heredia
13.00	Pepelus - Los Dimy

# Perrahotsa eta Pub People taldeak onenetarikoak

Zaldibar txapelketan bigarren fasea bukatzeko lau partidu falta direnean, argi eta garbi ikusten da talde batzuen nagusitasuna. Argi Ibili eta Perrahotsa daude A taldeko buruan sei eta bost punturekin. B taldeko liderra bost punturekin Los Heredia taldea da eta Pub Peoplek ere beste horrenbeste puntu ditu. D taldean partidurik galdu gabe Fosforos dago eta bost punturekin Cerveceria Leintz. Azken taldean, berriz, orain arteko onena Mikelos da eta bost punturekin bi talde dau-de Suministros Ugarte eta Adelaida Haizea. Sailkapeneko behe alde-

an partidurik irabazi barik eta ondorioz punturik gabe, Ojo avisore eta Ganbelas.

Jardunaldi honetan 119 gol sartu dira. Bukanak eta Nuevo tabernaren arteko neurketan sartu dira gol gehien, 14 gol, 8 Bukanak eta 6 Nuevo tabernak. Cerveceria Leintzek 7 sartu dizkio Totem taldeari eta MSM Ingenieria integralk beste horrenbeste AC Surcose-ri. Jardunaldian golik sartu ez duen taldea Ganbelas izan da. Taldez talde, B taldean 36 gol sartu dituzte, A eta D taldeetan 33 eta E taldean 17 guztira.

**URIBE AUZOA**

**Futbito Txapelketa**



**LARUNBATA 1**

**Iturripe A**

9.00	A Las 9 no - Munar Txiki
10.00	Ganbelas - Koka Juniors
11.00	Txeyenex - Gallinero
12.00	Balon Rojo - Astoen Bila
13.00	La Banda - Holokausto
14.00	Blackburn - Eztanda egin arte
15.00	Eman Bidea - Uglys Txinato
16.00	Lautherbrunnen - Corazon de Encina
17.00	Orkatz - Arrasate Kirolak
18.00	Ex. Fouren - Kurtze Txiki
19.00	Euskal Suporters - Iluna Taberna

**Iturripe B**

12.00	Lo + X - Hirei
13.00	Leya - Ex. Lete

14.00	Bodega Anboto - Sukar
15.00	Energizer - Equs
16.00	No Comment - Equs
17.00	Baneuko - Jotakabau
18.00	Berango Suk. - Salenco y K.
19.00	Telleria - Borrock 'n Roll Promesas

**IGANDEA 2**

**Iturripe A**

11.00	Tronkoteak - Los Intocables
12.00	The Barrio - Kamasutra
13.00	Berza Mutante II - Borrock 'n Roll

**Iturripe B**

11.00	Arrasate Zoo - Garajauke
12.00	Amaral - Trotabares
13.00	Zigarrolako GT - Ke Oxtias!

**VE ECUADOR**

Bidaiak

**Bidaia zoragarri bat irabazi nahi baduzu, har ezazu parte ATBketan lehiaketan Ez galdu aukera!**

Kontzeziño, 2  
ARRASATE  
Tfnoa: 79 14 06



*Kalitate gorena lehiotetan*

**LANTEGIA ETA ERAKUSKETA**

Kataide poligonoa, 4. pabilioia. Tfnoa: 77 01 57 ARRASATE

K O N T Z E R T U A

# ALBERT PLA

Apirilak 7, ostirala  
Gauko 10.30etan  
Amaia Antzokiko Hallean  
Sarrera: 300 pta

**S U P O N E F O N O L L O S A**

Albert Pla Sabadell-en jaio zen 1966an. Kantautoreen VI. Erakustaldia irabazi zuen 1988an. 1989an. "Ho sento molt" bere lehen L.P. argitara eman ondore, ordura arte ez bezala oso harrera ona jaso zuen jendearengandik. 1989an, berriz, "Aquí s'acaba el que es donava" izeneko lana argitaratu zuen. Urte horretan bertan Kataluniako Generalitatearen Musikako Sari Nazionala eman zitzaion. 1992an, bestalde, gaztelerazko lehen albuma ("No sólo de rumba vive el hombre") kaleratu zuen eta, hori zela eta, abeslari nabarmenduaren Icaro Saria jaso eta "Rock de Luxe" aldizkariak urteko diskarik onena aitortu zion.

Ikuskizun osotzat hartu ohi dira bere lan guztiak. Hori dela eta, "Albert Pla supone Fonollosa" lanak ez du loturarik gorde bere aurreko ikuskizunekin. Artista bera d lan batzuen eta besteen arteko zubia.




Arrasateko Udala



**gm!**  
gaztemaniak!

Laguntzailea:  
ATERPE taberna



# Judoaren txanda

## Euskadiko Judo Txapelketa Arrasaten

Itxaro Zubillaga

**Musakolako Kirolegian domekan Euskadiko Judo Txapelketa burutuko da, senior eta 17 urte azpikoentzat. Goi mailako ekitalde baten lekuko izango da Arrasateko herria, hau da, Euskadiko judoka onenen topaleku.**

Arrasateko Judo taldeak azken urteetan lortutako emaitza bikainek eragin handia izan dute Arrasate horrelako ekintza garrantzitsua burutzeko aukeratua izateko orduan. Julio Gallego entrenatzailea eta Xabier Bengoa presidentearen berbetan, erronka handia dute txapelketarekin "gogo handiz ari gara txapelketa prestatzen, gauzak antolatzen jakin bada-kigula erakutsi nahi dugu, eta judoa herrira gerturatzea gustatuko litzaiguke"

### 20 URTEKO BIZITZA

1974. urtean eman zituen lehen urratsak Arrasateko judo taldeak. Julio Gallego irakaslearen gidaritzapean zenbait neska-mutiko hasi zen kirol honen gozotasuna gertutik ezagutzen. Gozotasuna, judoak ez du eta agresibitatearekin zerikusirik, (besardako leuna) izenaz eza-gutzen den kirola, kirolen artean osatuenetariko bat dela esan daiteke. Unesco erakundeak ere judoa egitea gomendatzen die umeei, garapen fisikoan eta psikologikoan eragin gehien duen kirola delako. Judoa flexibi-

litatea, indarra, potentzia, tre-bezia eta abiadura garatzen ditu eta era berean gizabana-koaren autoestima eta konfidantza lortzen laguntzen du. Pribilegiatu batzuen kirola dela iruditu arren, adituek diote judoak ez duela adinik, ez neurririk eta ezta pisurik ere "norberaren gorputzera egokitu behar da judoa, ez dira ezaugarri bereziak behar. Gogoia eta borondatea izatea da baldintza bakarra".

### JUDOAREN EGITURA

Japonen sortututako kirol honetan, kirolariaren maila

ezagutzeko gerrikoak erabiltzen dira. Gerriko zuriak beheko maila adierazten du; beltza, berriz, goi mailaren adierazgarri da eta tartean gerriko oria, laranja, berdea, urdina eta marroiak daude. Mailaz igotzeko azterketa gainditu behar izaten da, judoka bakoitzak zenbait froga gainditu behar du gerrikoz aldatu ahal izateko. Une hone-tan, bost eta hamezortzi urte tarteko 30 neska-mutilek osatzen dute Arrasateko judo taldea "Ez ditugu neska-mutiko asko baina maila onekoak

direla esan dezakegu, txapelketetan parte hartzen dutenean primeran ibiltzen dira eta horregatik behin baino gehiagotan deitu digute Estatuko eta Frantziako txapelketetan parte hartzeko". Judo taldeko arduradunek taldean jende gehiago ez izateko arrazoia aipatzen dute "93. urtera arte askoz ere jende gehiago zebilen taldean, baina iaz behe-rakada nabarmena igarri genuen. Izan ere, Judoan egiteko derrigorrez kiroldegiko bazkidea izan behar da eta gainera, judoko klaseak ordain-



Arrasateko Judo Taldean adin guztietako partaidea dabilta.

du. Kiroldegiko bazkide ez den jendeak gaur egun ezin du kirol hori egin eta judoa egiteko klaseak ordaintzeaz gain, kiroldegiko kuota ordaindu behar izateak atzera bota du jende asko. AUKE-Ak hartutako erabakiarekin ez gatoz bat, jende asko diskriminatuta geratzen dela pentsatzen dugu eta”

### EUSKADIKO TXAPELKETAREN NONDIK NORAKOAK

Txapelketan 300 neska-mutilek hartuko dute parte, goizean parte hartzaileen erakustaldiaz emango zaio hasiera ekitaldiari eta 11ak aldera, 15 urte azpiko Gipuzkoako Txapelketa jokatu da. Arratsaldeko 4etan, berriz, 17 urte azpikoen Euskadiko txapelketa eta 6etan seniorrena. Herrialde bakoitzetik bi ordezkari etorriko dira kate-



## Hiru judoka gazte

**Arrasateko judo taldean egunero lagun asko ibiltzen bada ere, ezin guztien iritziak jaso, eta nolabait aukera egin behar: bat txapelketan ibilitakoa, bestea igandean arituko dena, eta hirugarrena agian ibiliko dena.**



**Deiane Moreno**  
8 urte

“Bost urterekin hasi nintzen judoan. Hasieran zaila iruditu zitzaidan baina orain oso ondo pasatzen dut. Entrenamenduetan judoko ariketekin tartekatuz jolasak egiten ditugu eta batzutan asko nekatzen naizen arren gustora etortzen naiz. Gainera, ikastolan mutilekin borrokan egiten dudanean irabazi egiten dut gehiengatzen eta hori asko gustatzen zait”.



**Itziar Zabala**  
14 urte  
**Arrasateko ordezkari bakarra**

“Orain lau urte hasi nintzen, ez nuen ezer egiten eta zerbait egitearren etorri nintzen. Judoa teknika ikasi arte ez da hain zaila baina ordu arte gogorra egiten da. Datorren domekan Euskadiko txapelketan hartuko dut parte, ez dakit zein maila egongo den eta ezta zer egiteko gauza izango naizen ere. Hala ere, gogor entrenatzen ari naiz eta ahal dudana egongo egingo dut”.



**Gaizka Aranegi**  
18 urte

“Gurasoak lau urte nitueanean eraman ninduten judoko entrenamenduetara eta harrez gero, hemen nabil. Urte hauetan lortutakoak pozik egoteko arrazoirik badut, emaitza onak lortu ditut eta. Judoan zailena, txapelketetan hasitakoan dator, giltzak ondo egitea eta mugimenduak konbinatzea ez da hain samurra eta. Lesionatuta nagoenez, ez naiz egongo Euskadiko txapelketan eta pena handia ematen dit herrian delako”.

goriaren arabera eta 7 kategoria egongo dira guztira. Horrelako txapelketa bat antolatzeke dirua izaten da arazo larrirenetarikoa, are eta gehiago diru-iturri handia ez duen talde batentzat. Arrasateko judo taldeak hamaika ate jo behar izan du txapelketa antolatzeke behar den diruaren bila “Arrasaten ez dago laguntza publikorik goi mailako txapelketa bat antolatzeke eta dirulaguntzak lortzea ia ezinezkoa da. Guk publizitatearen bidez lortu dugu diru apur bat baina ez da hain samurra izan. Talde garen neurrian AUKEAko laguntza jasotzen dugu, herri-



**ogoa eta borondatea izatea da baldintza bakarra judoan egiteko.**

ko beste kirol erakundeek bezala, baina hori ez da nahikoa txapelketari aurre egiteko. Eta azkenean, txapelketa herriarendako izango da”.

Diru arazo gairidigaitz horiek izan arren, goi mailako txapelketa gogo eta ilusioz beterik antolatu dute judoko arduradunek “badakigu Arrasateko herriak ez diguna kale egingo eta txapelketaren aurrean erantzuna bikaina izango dena. Hemendik jendea animatu baino ez dugu egiten”. Domekan, beraz, Euskadiko judoka onenei ongi-etorria emateko, galaz jantziko da Musakolako kiroldegia.

# Eskubaloi taldea lehen mailari eusteko borrokan

Arrasate eskubaloi taldea eta Alcobendasen arteko partidua jokatu da zapatuan arratsaldeko 6etan Iturripen. Arrasateko taldeari bi partidua baino ez zaizkio falta promozio fasea bukatzeko, Alcobendasen kontrakoa eta datorren astebukaeran Lanzaroteko Betacarren kontra jokatuko duena. Bi neurketa hauek garrantzitsuak dira etxeko taldearentzat eta irabazi beharrekoak. Promozio fasean zazpi talde daude, azken sailkatua jeitsi egingo da eta 5. eta 6. tokietan sailkatzen direnek jeitsiera fasea jokatu beharko dute. Burgos bi punturekin azken sailkatua da, beraz esan daiteke kategoria galdu duela. Betacar dago 9 punturekin 6. tokian eta Arrasate eta Bejarano 10 punturekin 5. eta 4. tokietan. Arrasatek Bejaranori irabaziko balio eta Burgosek Betacarri, Arrasateko taldeak ez luke jeitsiera fasea jokatu beharrik izango. Arrasatek eta Betacarrek, biek irabaziko balute, azken jardunaldira arte itxaron beharko litzateke gauzak argitzeko. Kon-



Arrasate eta Alcobendasen arteko partidua erabakiorra izan daiteke.

tuak kontu, Arrasate taldearen aurkari zuzenak Betacar eta Bejarano dira.

Zapatuko partidurako, Arrasateko taldean jokalaria guztiak sasoi-sasoian daude. Alcobendas taldea multzoko liderra da, ez du partidurik galdu eta ondorioz lehen mailan jarraitzen du, beraz,

tramite hutsa izango da eurentzat. Madrildarrek oso ondo mugitzen dute baloia, taldean ez dago jaurtitzailerik treberik baina jokaldiak egitean oinarritzen dute jokua, talde lana ondo betetzen dakite eta kontraerasoan oso azkarrak direnez min handia egin dezakete.

## PENALTIAK

● AEDko gazteek nesken futbito liga antolatu dute. Dagoeneko bederatzi taldek eman dute izena: Ireklas, Zepassetandon, Joixon Bertan, B.G, Las Mels, Txakolintxintxau, Orkatz, Zure Atzetik eta Izenbakuak. Liga zapatu honetan hasiko da eta neurketak Ferixalekuan jokatuko dira goizeko 10etatik 2etara. Apirilaren 1ean, 8an, 29an, maiatzaren 6an, 20an, 27an eta ekainaren 3an jokatuko da liga eta puntu gehien lortzen duen taldeak irabaziko du. Neurketak ordubetekoak izango dira eta epaile lana taldeetako ordezkariak egin beharko dute. Talde bakoitzean gehienez federatu bat egin daiteke.

● Arrasateko zikloturistek 74 kilometroko irteera egingo dute domekan. Ibilbidea: Arrasate, Bergara, Maltzaga, Deba eta Arrasate. Irteera goizeko 10etan izango da Monterronetik.



**MONDRAGON**  
ESKOLA POLITEKNIKOAK

*Zurea da aukera!*

## 16-20 urte bitartean bazaude...

Zatoz **ESKOLA POLITEKNIKOAK** apirilaren 4 eta 5ean, arratsaldeko 6etan, egingo dituen **saio informatiboetara**.

- Apirilak 4: 3. mailako moduluak.
- Apirilak 5: LOGSE BATXILERGOAK eta 2. mailako moduluak.



## ATLETISMOA

Emaizta onak  
Anoetan

Anoetako pistan asteburuan burutu ziren txapelketetan senior eta kadetetako Gipuzkoako atletismo selekzioak, Andorrakoak eta Kataluniakoak neurtu zituzten indarrak. Arrasateko ordezkariarik ere egon zen bertan, Manuel Anguasek seniorren 4 x 400 metroan hartu zuen parte, seniorretan eta Anartz Azkarratek kadete mailako pisu jaurtiketan eta 4X 400 metroan. Emaizta bikaina lortu zuen Gipuzkoako selekzioak, seniorretan txapeldunorde geratu zen eta kadetetan lehen postua eskuratu zuen. Bestalde, Tolosako Berazubiko pistetan, atletismo probak jokatu ziren zapatuan eta Oliver Fernandez arrasatearrak izugarriko denbora lortu zuen. 600 metroko lasterketan bere denbora 1'36'koa izan zen.

Azkoitia-Azpeitia maratoin 13 arrasatearrek hartu zuten parte eta Luis Ugarte izan zen arrasatearren artean azkarrena, denbora 1. 16'50".

Urbina Maltzaga eta Basconia  
aurrez aurre asteazkenean

Urbina Maltzagak eta Basconia Taugresek elkarren kontra jokatuko dute Mendizorrotzan apirilaren 5ean arratsaldeko 7.30etan. Partidua "Araba Euskaraz"-en alde jokatu da. Araba Euskaraz ekainaren 18an ospatuko da Armentian eta antolatzaileek giroa berotuz joan dadin hainbat ekintza antolatu dute, horietariko bat asteazkenean jokatu den partidua.

Partiduko aurkezpena egiteko joan zen asteazkenean prentsaurrekoa eman Gasteizko Canciller Ayala hotelean eta Araba Euskaraz-en antolatzaileez gain, Jose Luis Sanchez Errauskin Basconiako direktiboa eta Urbina Maltzagatik Jon Ander Juldain bertan izan ziren. Talde bietako ordezkariak adierazi dute gustora hartu zutela ideia eta horrelako ekintzak bultzatzeko beti egongo direla prest.

Partiduko sarrerak umeentzako 300 ptakoak izango



Asteazkeneko partiduaurrez aurre aurkezpena.

dira eta nagusientzat 700 koak. Arrasaten AEDn, Hire eta Monten eros daitezke. Ikusten denez merkeak, eta merkeak izateko antolatu dute neurketa. Izan ere, Araba Euskaraz jaiaren antolatzaileen helburua ez da partidua horretatik dirua lortzea, ikuskizun berezia eskaintzea baizik.

Europako txapeldun ordea lehiari ikustea ez da ikuskizun makala izango. Laso, Nicola, Rivas, Green eta Perasovicen moduko sas-

kibalo jokalaririk handien saskiratzeak eta joku espektakularren lekuko izateko merezik du Mendizorrotzara joateak. Urbina Maltzagako jokalaririk ere tamaina ematen ahalegingo direnez, goi mailako saskibaloia nagusi izan daiteke Mendizorrotzan.

Asteazkeneko partidua baino lehen, Urbina Maltzagak Concello de Portas taldearen kontra jokatu du domekan eguerdiko 12etan Galizian.

## EMAITZAK

## Futbola

3. maila: Getxo 1 - Zamudio 0.  
2. Erregionala: Mondra 3 - Elgoibar 1  
Emakumeak: Mondra 4 - Alde Zaharra 1  
Jub Ohorezko Liga: Union Txiki 2 - Mondra 0.  
Lehen Kadeteak: Arrasate 2 - Mutriku 0  
2. Kadeteak: Arrasate 4 - Hamaika bat 1  
Infantilak: UDA 0 - Arrasate 0  
**Hurrengoak:**  
3. maila: Mondra - Zalla. Igandea. 4.30etan. Atxabalpe  
2. erregionala: Gazteak - Mondra.  
Emakumeak: Mondra - Aloñamendi. Igandea. 11.30etan.  
Jub Ohorezko Liga: Mondra - Amaro. Larunbata. 4.30etan.  
Lehen Kadeteak: Almen - Arrasate. Igandea. 10.15etan.  
Bigarren kadeteak: Bergara - Arrasate. Igandea. 10etan.  
Infantilak: Arrasate - Urki. Igandea. 10.15etan.

## Saskibaloia

EBA Liga: Urbina Maltzaga 82 - C. B. Leon 69  
Seniorrak S-23: Urbina Maltzaga 80 - Ostadar 67  
Juniorrak A: Urbina Maltzaga 136 - Etxadi 54.  
Seniorrak Emak: Urbina Maltzaga 57 - Amigos del Baloncesto 40  
Kadeteak B: Urbina Maltzaga 37 - Ake-larre 52  
Kadeteak Emak A: Urbina Maltzaga 39 - Juven Oleta B. 56  
Kadeteak Emak B: Ondartza Landetxa 37 - Urbina Maltzaga 41  
**Hurrengoak:**  
EBA Liga: Concello de Portas - Urbina Maltzaga. Igandea. 12etan. Portas.  
Seniorrak S-23: Goierrri - Urbina Maltzaga. Larunbata. 5.30etan. Urretxu.  
Juniorrak A: Askatuak - Urbina Maltzaga. Ostirala. 7.15etan. Donostia.  
Juniorrak B: Urbina Maltzaga - Aralar Kiro-

lak. Larunbata. 4etan.

Kadeteak A: Tximista Elektrizit - Urbina Maltzaga. Larunbata. 4etan. Donostia.  
Kadeteak B: Askatuak - Urbina Maltzaga. Igandea. 10etan. Donostia.

## Eskubaloia

Lehen maila: Bejar 20 - Arrasate 18  
Hurrengoak:  
Lehen maila: Arrasate - Alcobendas. Larunbata. 6etan. Iturripen.  
Lehen Territoriala: Zarautz - Arrasate. Igandea. 11.30etan. Zarautz.  
Jubenilak: Don Bosco - Arrasate. Larunbata. 11etan. Pasaia.  
Jubenilak: Arrasate - Aloñamendi. Igandea. 12etan. Iturripen.  
Futbitoa  
Lehen Maila: Arrasate 4 - J. Claudio 2.  
Arabako Territoriala: Arrasate 6 - Lehoia B 4  
**Hurrengoak:**  
Lehen maila: Antenavision - Arrasate.

Larunbata. 5etan. San Ignazio.  
Arabako Territoriala: Arrasate - Gomar. Larunbata. 3.30etan. Iturripen.

## Rugby-a

Emakumeak: Arrasate 10 - Atletico Bera-Bera 22  
**Hurrengoak:**  
Lehen maila: Hernani - Arrasate. Larunbata. 5etan.

## Pilota

Paletan: Idiazabal 32 - Arrasate 35.  
**Hurrengoak:**  
Ohorezko Liga:  
Paletan: Arrasate - Adurtza. Larunbata. 11.30etan. Musakola.  
Deba Arroa  
Antzuola - Arrasate. Larunbata.

“Arrasate 93” AEDko lehiaketa

“San Frantziskoko kalistroaren txokoa”

Miren Edurne Elvira (Akzesita helduen mailan)



“Bertso, sexu, droga eta rock & rolla”

Asier Etxaniz

(Bertso lehiaketan gaztetxoan mailan saritutako bertso-papera)

Industrialde ilun bateko zulo baten gaude zazpi neska-mutil zein trabesti sexu orgia gozoan jolas ardo azukre ta ezti. Aurretik ekin atzetik gero berotuz gain eta azpi ez dago batere gaizki psikodelia bidai zoroan murgildu gara amesti.

Errekin dena agortu dugu lanean da burdin ola ziprztinean odola bular aldeko mailutzar honek erasar digu oskola. Lotsa samin ta negar malkoak jada ez zaizkigu axola garaile gu edonola gora bertsoa! Gora sexua! Drogak eta Rock & Rolla.

“Udazkena”

Tamara Irizar

Pagotxo horrek ez du larregitxo horri bere azpi-azpian omen ditu jarri mendi goibeltxo hortan hiru katagorri jolasean dabilta salto eta korri.

“Bertsoak”

Ane Atxotegi

Almeneko Mirari eta Ane gera animatu gerade koplak idaztera. Ez garela etorri sariak hartzera jarri gera gustoko lan bat egitera.

“Udalaitzeri”

Ekhine Landa

Berak merezi du bai, txapela kentzia gailurrera igota egin irrintzia bertan biltzen bait dira hiru probintzia Zazpi lurraldetako arpegiz jantzia Euskadi osoaren bidegurutzia.

## Z E R N A H I A G O ?

**Deiane Zabala****“Akelarre”  
gozotegikoa**

- Ze ordutan hasten zara lanean? Goizetan 5etan eta arratsaldetan 2.30etan.
- Zer da jendeak gehien eskatzen duena? Pastel txikiak.
- Gozozalea izan behar da gozogile ona izateko? Ez, ez da derrigorrezkoa.
- Urteko zein egunetan izaten duzue lan gehien? Gabonetan.
- Baduzue errezeta sekreturik? Ez, jendeak errezetaren bat galdetzen digunean esan egiten diogu.
- Ez dago gizentzeko arriskurik lan honetan? Norberaren arabera izaten da hori; batzutan denetarik probatzen dugu, bestetan ezer ere ez.
- Sukaldari famatuen errezetak jarraitzen dituzue? Ez.
- Euskaldunok gozozaleak gara? Bai, baina ez beste batzuk baino gehiago.
- Pastelik gustokoena? “Creme”a; hojaldre, krema eta xigortutako gorringoaz egindakoa.
- Zenbat denbora behar izaten da eztei tarta bat egiteko? Ordu bat gutxienez.
- Zer prestatuko zenuke Infantaren ezkontzarako? Tarta “erotiko” bat.
- Gogorra da asteburuetan lan egitea? Hasieran bai, baina orain ez zait ardura.
- Fruta bat? Laranja.
- Zein kirol duzu gustokoen? Mendira joatea.
- Noiz idatzi zenuen azken eskutitza? Orain bi aste.
- Inoiz lapurtu dizute kartera edo poltsa? Ez.
- Fotogenikoa zara? Ez, bat ere ez.
- Pertsonengan zer da gehien baloratzen duzuna? Zintotasuna eta errespetua.
- Zinean izan zinen azkenengo aldia? Orain bi hilabete.
- Umeak gustatzen zaizkizu? Bai, asko.



## LABURRAK

**Ikasleentzako  
bilerak**

Hezibide elkarteak bailarako 16 urtetik gorako ikasleei informazio emateko bilerak hasi zituen pasa den martxoaren 21ean. Ikasleei Derrigorrezko Bigarren Irakas-kuntza amaitu eta gero dauden aukerak ezagutaraztea dute helburu bilera hauek.

Apirilaren 4an San Viator ikastolak Batxilergo Orokorriari zuzendutako bilera burutuko du arratsaldeko 6etan. Eskola Politeknikoak ere beste bi bilera egingo ditu: lehenena, 3. mailako moduloko ikasleei zuzendutakoa, apirilaren 4an arratsaldeko 6etan; bigarrena, apirilaren 5ean, LOGSE Batxilergoari zuzendutakoa.

**Haran-Bizia  
taldearen hitzaldia**

Haran-Bizia taldeak hitzaldia antolatu du apirilaren 4rako Urbina-Maltzaga autopistako egitasmoaren egoera aztertzeko. Alberto Frias ekologista eta abokatua mintzatuko da. Hitzaldia Monterronen izango da arratsaldeko 7etan.



**NISSAN-en gamarik  
zabalena Arrasaten!!!**

*Orain zu!*

**Orain  
Nissan Micra  
1.090.000 pta.tik  
aurrera.**


Escatu Pabilioia, 3 (San Andres auzoa) ARRASATE Tfnoa: 79 27 16

# Goikobaluk bere konpaktoa aurkeztuko du igandeko kontzertuan

“Euskaldunon kantak” izenburuko disko konpaktoaren aurkezpena egingo du Goikobaluk abesbatzak igandean Amaia antzokian burutuko den kontzertuan. Konpaktuaren aurkezpena egiteaz gain, Goikobalukoek prestatzen ari diren Carmina Burana lanaren 3-4 kanta eskaintzeko asmoa dute igandeko kontzertu horretan.


Goikobaluko kantariak bi asteburu oso behar izan dituzte “Euskaldunon kantak” konpaktean agertzen diren 17 kantak grabatzeko, “asteburu gogorrak” Goikobaluko partaideetarik baten esanetan.

Igandeko eguerdiko 12etatik aurrera aurkeztuko den disko konpaktuaren historia ezagutzeko hilabete batzuz atzera jo behar da. Ideia asmo bihurtu zitzaizenean Goikobalukoek MCC-ra jo zuten proiektua bultzatzeko laguntza eske. Azken hauengandik baiezkoa jasotzea gutxi balitz, Fagor, Joma, Alejandro Altuna, Asmobi, Arrasateko Udalak eta IZ disketxeak berak ere proiektuan parte hartzeko borondatea agertu zuten. Bitartekoak lortuta, esan bezala, IZ disketxe Arbizalde baserrian bi asteburu oso behar izan ziren konpaktoaren 40 minutuak



grabatzeko.

Goikobaluko gainontzeko lanetan bezala, Luis Ignacio Ruiz de Alegriaren zuzendaritzapean grabatu da “Euskaldunon kantak” konpaktoa; ez da harrizkoa beraz, abesbatzaren zuzendaria pozik agertzea: “Lan gogorra izan zen, ordu asko pasa genituen grabatzen eta. Nire ustez abesbatzakook gure lanarekiko eskakizun maila handia dugu, bakoitza arduratzen da gauzak ahal duen ondoen egiten, eta horrek ere gogorragoa egiten du lana. Dena dela, esan behar da era



Ruiz de Alegria zuzendaria.

berean harreman esperientzia polita izan zela”.

Ez ziren abesbatzakoak edo zuzendaria bera grabaketa egin ondoren pozik geratu ziren bakarrak, Ruiz de Alegriaren esanetan IZ etxekoek lana kalitatezkoa zela aipatu zuten eta. “IZkoek eskuartean materiale ona zutela ikus eta gero, teknikoki izugarriko ahalegina egin dute”.

Konpaktu hau Goikobaluk grabatzen duen hirugarren lana da, lehen Vivaldiren “Gloria”rekin grabatutako kaseta izan zen; bigarrena, berriz, ARKOren laguntzaz kaleratutako Beethoven-en bederatzigarren sinfoniaren bideoa.

Eskuartean eduki daitezkeen lanak dira aipatutakoak, bestelakoak asko izan dira eta. Egindakoak asko eta garrantzitsuak izan dira, baina egitekoak oraindik gehiago. Egutegia zabalterik balego eta aurrera begiratua, seguruen orain arte Goikobaluk hartu duen erronka handienaren itzala ikusiko litzateke ez oso urrutira: Carmina Burana lana.

Ordura arte, nahiko lan izango dute Goikobalukoek entsaiatu eta atera berri duten konpaktoa saltzeko, zirkuito komertzialetan sartzeko asmoa dagoen arren. Konpakto bakoitza 2.000 pta.n erosi ahal izango da.

**ITSASKI**

ARRANDEGIA

Arrain freskoa eta jaki izoztuak

Uribe Auzoa  
ARRASATE  
Tfnoa: 79 98 94



PEUGEOT

Salmenta eta zerbitzua

**IBABE  
GARAJEA**

**MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA**

Gesalibar auzoa, z/g. Tfnoa: 79 99 61 ARRASATE

**TXOKO  
TABERNA**

Eure berezitasunak  
pintxo eta  
mokau gozoak

# Errealismoa eta inpresionismoa erakusgai

Manolo Quevedo eta Luis Javier Arrieta margolari arrasatearren artean egindako erakusketa dago ikusgai Harresi Aretoan apirilaren 2ra arte.

Bi margolariak Arrasateko Margolari Taldearen (AMT) fundatzaileak izan ziren orain dela bi urte eta hau ez da egiten duten lehen erakusketa. AMTk urtero urtero egiten du taldean dabil-


tzan margolari guztien erakusketa baina orain, margolari bakoitza ezagutzera emateko asmoz, banakakoak egiten hasi dira; horren lekuko, erakusketa hau. Quevedo eta Arrietak esaten dutenez, margolarien elkartea oso ondo doa eta bertan biltzen diren artean dagoen giro ona azpimarratzen dute.

Harresi Aretoan 40 oleo daude ikusgai: bodegoiak,

erretatuak, paisaiak; beti ere margolariaren gustoko gaiak.


Dena dela, bi margolarien elkarrekin erakusketa egiteak ez du esan nahi bien estiloa berdina denik. Arrietaren margoak argitsuagoak dira eta Quevedok, Arrietak ez bezala, estilo inpresionista lantzen du.

Bi margolariak hobeto ezagutzeko asmoz, zenbait datu bildu ditugu:



**Luis Javier Arrieta**  
50 urte

- **Margo-eskola:** Orain 4 urte Bergarako eskolan hasi zen margoketa ikasten gauez. Ondoren bi urte eman zituen Monterronen. Duela urtebetetik AMTn dihardu.
- **Estiloa:** Errealista.
- **Margolari gustokoenak:** Sorolla, Zurbaran, Van Gogh.
- **Margotzeko ordurik aproposena:** Ez dauka nahi duen beste denbora margotzeko. Bidaia asko egiten du eta bidaietatik bueltan ateratako diapositibekin, koadroak margotzen ditu.
- **Erakusketako koadrorik gustokoenak:** "Amaia", "Keniako uhartea" eta "Marrakecheko zokoa".
- **Margotzen dituen gaiak:** Argitsua den edozer gauza.



**Manolo Quevedo**  
56 urte

- **Margo-eskola:** Liburuen bidez bere kasa ikasi du eta 30 urte daramatza koadroak margotzen. Monterronen ere ikasi zuen.
- **Estiloa:** Inpresionista.
- **Margolari gustokoenak:** Monet eta Manet; frantziar margolari inpresionista guztiak.
- **Margotzeko ordurik aproposena:** Ez da bat ere erregularra; asteburuetan eta astean zehar egun baten margotzen du.
- **Erakusketako koadrorik gustokoenak:** Leiho baten atzean dagoen atsoarena. Margo honetan, atsoa eta leihoko beiran isladatzen den paisaia marraztu du.
- **Margotzen dituen gaiak:** Natura, bodegoiak, lorak eta lanbideak.

## A. Gabriel Jauregi Uribarrenen mendeurrena

Apirilaren lehenean, A. Gabriel Jauregi Uribarren idazlearen mendeurrena burutuko dute Aramaion. Ekitaldia bertako udaletxean egingo da eguerdiko 12etan: Jose Ramon Uribe Aramaioko alkatea, Jean Haritschelar euskaltzainburua eta A. Domingo Fernandez de Mendiola karmeldarren probintziala izango dira bertan.

Ospakizun-ekitaldian, hainbat txosten aurkeztuko da: Patxi Uribarren eta Julen Urkizaren, "Gabriel Jauregi-ren bizitza eta lanak", Jazinto Iturbe eta Jose Ramón Etxebarriaren "Kimia eta Phisia lanei buruzko azterketa" eta Gotzón Garate eta Patxi Salaberriren "Aramaioko euskeraren ondaretasunaz" hain zuzen.


Ekitaldiaren bukaeran, Arabako Foru Aldundiko Diputazioko laguntzaz argitaratutako "Aita Gabriel Uribarren (1895-1995) liburua aurkeztuko da.

## Euskal Eskola Publikoen IV. Festa

Datorren domekan, apirilaren 2an, Euskal Eskola Publikoen IV. Festa ospatuko da Bilboko Etxebarriako parkean.

AEDk autobusak antolatu ditu bertara joan nahi duten guztientzat eta izen-ematea AEDn bertan, Hire liburudendan eta Iturrioz tabernan egin daiteke martxoaren 31a baino lehen. Prezioa 1.000 ptakoa da.

Autobusak goizeko 9.30etan aterako dira Gari-baitik eta itzulera ilunkeran izango da.



z da denbora asko gerra aurreko ikastolako ikasle talde baten argazkia atera genuela. Aste honetakoa ere

sasoi berekoa eta abadetxean, ikastola zegoen lekuan bertan ateratakoa.

1933a zen eta bi gelatako ikasleak izan behar zuten, edade ezberdineko mutikoak, eta euren maixuak.

Goitik ezkerretik hasita, **Juan Zulueta, Patxi Erzilla "Arteta", Sagasta "Moja-tegi", Arizabaleta, Bittor Usobiaga, Sabin Zabaleta, Murri baserrikoa, ezezaguna, Lorenzo Narbaiza, Petxo Aiastuy, Modesto Berezibar, Usobiaga eta**

**Joxe Bixente Etxabe.**

**Aranzabal, Anton Otaduy "Etxetxo", Fernando Otaduy, Joxe Aranzabal, Leandro Azkoaga, Pedro Barrutia-bengoa, Julio Otaduy, ezezaguna, Felix Arriaran, Juan Joxe Axpe, Angel Altuna, Andoni Ugalde eta Raimundo Uribarren.**

**Zaitegi maixua, On Leonardo Guridi apaiza, Segundo Arana "Larratxu", Felix Lizarralde, Guzman, Jon Ugalde,**

**Ugalde, Miguel Vazquez, Modesto Barrutia, Santiago Arana "Larratxu", Alejandro Zabaleta, Jesus Berezibar, On Jose Markiegi apaiza eta Patxi Mendizabal maixua.**

Lurrean jarrita ezkerretik lehengo biak ezezagunak, **Eraña "Kaxo", Juanito Iribecampos "Popillo", Martin Garai, Xabier Arregi "Kataide", Paulo Balanzategi, Heriberto Mendizabal, Agustin Maidagan eta Jose Arregi.**

**ONGI ETORRI,**  
konpainia onean  
egoteak badu  
abantailik.



- ☛ Bizitza
- ☛ Etxebizitza
- ☛ Autoa
- ☛ Etabar

Otalora Lizentziatua, 5

20.500 ARRASATE

☎: 79 70 67

*Orain*

# URKIOLA

**jantzidendan  
gure puntako markez gain**

SNIF, EMOI, DIESEL,  
REPLAY, CHARRO, ISLAND,  
DANIEL, HECTER, CALVIN KLEIN,  
GAULTIER JEANS, HARVEY ROTHSCHILD,  
MARITE FRANCOIS GIRBAUD.



**RED GLOBE**

## URKIOLA

**modaren puntan!**

Bidegurutzeta, 42  
BERGARA

Nagusi, 9  
LEGAZPI

**ESKI**

**Likidazio  
Hamabostaldia!**

**15.000 pta.tik**

**Eski + Fijazioak**

*Ez galdu aukera!!*

**LORAMENDI KIROLAK**

• ESAERA •

“Amorante txar bat sekula ez da senar ona izango”

RUIZ DE ALARCON

• JEROGLIFIKOA •

ME MI  
MO MU

Arabako herri bat.

• GURUTZEGRAMA •

1	2	3	4	5	6	7
8						9
10					11	
12			13	14		15
16						
17						18
19			20			

J. B. AGORRIA

**Horizontalak** 1. Iñigo, Saskibaloitaldeko pibota. 8. Aditzera eman. 10. Langile Abergizaleen Komiteak. 11. Ez solidu, ez likidu dena. 12. Apaiz. 15. NATOko kontsonanteak. 16. Zatiketaren ekintza. 17. Ukitu. 18. (Ald.) Alfabetoko 18. letraren izena. 19. Hortzak finkatzen ditu. 20. Aurkitu.

**Bertikalak** 1. Jauregi. 2. Txalaparta. 3. Lehertu. 4. Infusio mota. 5. Txakur. 6. (Ald.) Gozo bizi, grina. 7. Agerian ikusten dena. 9. Zikin, lizun. 13. Titi, bular. 14. (Ald.) Dukerriko buruaren titulu.

• HOROSKOPOA •

**Aries** Gertu duzu beti adarra jotzeko makina. Aizu, nahikoa da.

**Taurus** Eztia ostiraletan, ozpina astelehenetan. Asteko gainontzeko egunetan zelakoa zara?

**Gemini** Esperantza galtzen duzunean erabat lurjota geratzen zara.

**Cancer** Bizkar hezurra okertuko duzu hobeto esartzen ez bazara.

**Leo** Iratzargailua atzeratzen duzula-ko heltzen zara lanera berandu.

**Virgo** Liluraturik uzten nau zure jakinduriak. Zein liburu irakurtzen duzu?

**Libra** Muga larregi jartzen dizkiezu zure seme-alabei.

**Scorpio** Ahobero bat zarelako ez zaitu aguantatzen jendeak.

**Sagitarium** Gau eta egun detektibe pribatu bat zure atzetik dabil.

**Capricorn** Sendagilearengana joango bazina zer ez lizuke diagnostikatuko.

**Aquarius** Etxean diktaduran bizi zarete. Iraultza egin beharko duzue.

**Piscis** Oporretan bazoaz ez ahaztu argazki makina eramatea.

# Etxe-Aundi



Andregaiak, galdetze hutsagatik, oparia jasoko du

ZUEK ESAN PREZIOA ETA GUK MENUA

Tfnoak: 78 19 56 / 78 32 90



Zuen ezkontza gurekin ospatzen baduzue,

EZKONTZAKO CAVA GURE KONTU


Anno de Codornis



## TELEBISTAREN TXOKOA

## Joseba Ugalde "Ni Alkate" saioan

Datorren ostegunean orain gutxi iragarritako "Ni Alkate" hauteskunde-programarekin hasiko da Arrasate Telebista. Mikel Irizarrek aurkeztuko duen programa honetan, azken hauteskundeetako botuen atzetik aurrerako araberako ordenean, alkateagaiak agertuko dira ostegunero. Lehen alkategaia EBko Joseba Ugalde izango da. "Ni Alkate" saioaren bidez, EB alderdiak udal-hauteskundeetan zinegotziak ateratzeko dauzkan aukerari buruz hitzegin eta hauteskunde-programaren ardatzak aurkeztuko ditu. Era berean, Joseba Ugaldi buruzko hainbat datu eta bere biografia eza-gutu ahal izango da. Joseba Ugalde ostegunean egongo da ATBn gaueko 9.30etan.



## PROGRAMAZIOA

**2 Igandea**

21.00etan  
Mondragol. Itxaro Zubillagak aurkeztua.

**3 astelehena**

20.00, 20.30 eta 21.00etan  
Berriak  
21.30etan  
Mondrasport

**4 Asteartea**

13.30etan  
Mondrasport (errep.)  
20.00, 20.30 eta 21.00etan  
Berriak  
21.30etan  
ATBketan

**5 Asteazkena**

13.30etan  
ATBketan (errep.)  
20.00, 20.30 eta 21.00etan  
Berriak  
21.30etan  
"Gazte Nahaste"

**6 Osteguna**

13.30etan  
"Gazte Nahaste" errep.  
20.00, 20.30 eta 21.00etan  
Berriak  
21.30etan  
"Ni Alkate" hauteskunde programa.  
Gonbidatua: IUko alkategaia, Joseba Ugalde.

**7 Ostirala**

13.30etan  
"Ni Alkate" (errep.)  
19.15etan  
Marrakzi Bizidunak  
19.50etan  
Kukaratxa Motel  
20.00, 20.30 eta 21.00etan  
Berriak  
21.30etan  
Astebete  
22.00etan  
Marrakzi Bizidunak

## KOMIKIA



## Etxe-Aundi

**1. PLATERA**

Txili eta perretxiko entsalada  
Frijitu aukeratuak

**POSTREA**

Etxeko gosoteria

**ARDOA**

Etxeko ardo gorria eta beltza

**2. PLATERA**

Haragia edo arraina

Kafea

Guztira 2.500 pta. (B.E.Z. barne)

## HIES EKIMENA

Astelehen, astearte  
eta ostiral  
5etatik 8etara.

Tfnoa: 79 26 99

## SOLUZIOAK

Maestu.  
Jeroglifikoak:  
tako. 9. Zantiar. 13. Ditu. 14. Ekud.  
3. Sikatu. 4. Te. 5. Or. 6. Rag. 7. Bis-  
Berrikalok: 1. Palazio. 2. Adabaki.  
19. O. 20. Idoro.  
NT. 16. Zatiketa. 17. Ikuru. 18. Ak.  
zt. 10. LAR. 11. Gas. 12. Abade. 15.  
Horizontalak: 1. Pastor. 8. Adiera-

**Etxebizitzak**

- **Pisua alokagai Arrasaten.** Tfnoa: 79 59 72.
- **Lokala alokatzen da Erguinen.** Tfnoa: 79 22 75.
- **Garaje plaza salgai J. I. Iñarra pasealekuan.** Prezio onean. Tfnoa: 79 07 34.
- **Aste Santurako** apartamentua alokatzen da Torreveijan (La Mata hondartzan). Tfnoa: 71 63 19.
- **Pisua alokagai Eskoriatzan.** 97 m<sup>2</sup>. Sukaldea, 3 gela, terraza. Tfnoa: 71 43 51. Gaueko 9etatik 11etara.
- **Apartamentua daukat Jacan** udaran alokatzeko. Tfnoa: 74 15 22.
- **Garajea alokagai Larrea Plazan,** Tfnoa: 79 36 79.
- **Garaje itxia alokatzen da Larrea aldean.** Tfnoa: 79 69 41. Julia.

**Lana**

- **Andra bat eskaintzen da** arratsalde edo aste-bukaeretan pertsona nagusiak zaintzeko. Tfnoa: 77 04 60.
- **Informatikako klaseak ematen dira.** Arrasaten, Aretxabaletan eta Eskoriatzan. Tfnoa: 77 02 59. Iker.
- **Magisteritza bukatua dut eta klase partikularrak emango nizkie** OHO ikasleei. Interesatzen bazaizu deitu 79 94 04 tfnora. Marijo.
- **Neska umeak zaintzeko neska prest.** Tfnoa: 79 90 04. M<sup>a</sup> Jose.
- **Umeak edo pertsona nagusiak zainduko nituzke.** Tfnoa: 79 39 15.

• **Neska prest,** etxeko lanak egin edo umeak zaintzeko. Tfnoa: 79 96 10

• **Esperientziadun** emakumea gertu dago etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko. Interesatuak dei egin larumbat eta igandeetan 79 31 44. Mirian.

• **Taberna edo denda batean** lan egingo nuke. Tfnoa: 77 02 70.

• **Etxeko edo atarteko** garbitasunak egiteko gertu. Tfnoa: 79 37 95.

• **Erizain laguntzailea** eta esperientziadun gero-kultorea pertsona nagusiak zaintzeko gertu. Tfnoa: 79 34 53.

• **Egunero 2 edo 3** orduan etxeko lanak egiteko emakumea gertu. Tfnoa: 77 10 20.

• **Mutil gazte bat lana egiteko prest** Kamarero, eraikuntzan... Tfnoa: 79 77 32.

• **Esperientziadun neska euskalduna** behar da, umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Dei egin arratsaldeko 8etatik aurrera 79 21 63 tfnora.

• **Klase partikularrak** ematen dira. UBI mailara arte. Matematikak fisika, kimika... Talde txikiak. Tfnoa: 79 56 82 eta 79 71 89.

• **Neska gertu** etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko edo dendari lanak egiteko. Tfnoa: 79 93 17

• **Neska gertu umeak zaindu** edo etxeko lanak egiteko. Esperientzia daukat. Tfnoa: 79 77 94.

**Salerosketak**

- **Garajea alokagai Uriburu auzoan.** Tfnoa: 79 90 30
- **Bigarren eskuko altzariak salgai.** Tfnoak: 79 23 97 / 79 52 80.
- **Kanping edo karro erremolkea salgai.** Tfnoa: 79 00 99.

• **Bi garaje plaza alokatzen dira.** Tfnoa: 79 82 95. Amaia. Arratsalde.

• **BMW K-75-S salgai.** SS-AK matrikula. 27.000 km. Berria eta prezio onean. Tfnoa: 77 04 21.

• **Motorra salgai.** BMW K75 - S. Matrikula: SS-AK. 27.000 km. ditu. Berria eta merkea. Tfnoa: 77 04 21.

• **Siberiar huski zakur kumeak salgai.** Begi urdindunak. Oso merke. 35.000 pta. Tfnoa: 79 57 03.

• **Asolo markako** mendiko botak salgai. 41 zenbakia. Prezio onean. Tel. 79 23 60.

• **Gas naturaleko kalentadorea salgai.** Prezio onean. Tfnoa: 79 59 72.

• **Bi pare eski** eta bi pare bota salgai. 33.000 PTA-gatik. Tfnoa: 79 25 31. Gauzez.

• **Gaztainondo egurrezko** "armairu zubia" saltzen da bi ohekin. Prezioa erabakitzeko deitu 79 44 00 tfnora.

• **Kanping-denda salgai.** Oso handia eta egocera onean. Tfnoa: 74 15 22.

**Denetarik**

- **Musika taldeak** lokal bat alokatu nahiko luke. Tel. 79 13 26.
- **Korreos-eko** oposaketak prestatu nahi badituzu deitu 76 80 53 tfnora. Goizeko 10etatik arratsaldeko 3ak arte.
- **Gay/lesbiana bazara,** lagun taldea osatzeko tan gaude. Elkarrekin primeran pasa dezakegu: jaiak, mendia, afariak... Zeren zain zaude? Idatze lehebait lehen. 128 postakutxa. 20700 Zumarraga.
- **Historialari bat** eskaintzen da genealogia egiteko. Tfnoa: 88 30 72. Arkaitz. Iluntzeko 8etatik aurrera.

**Aste Gazte**

**Auzolandegiak**

• Aurtengo udan auzolandegietan parte hartzeko aurreinskripzio epea zabalik dago. Aurten zozketa egingo da. Adina: 15-30 urte. Inskripzioak Gazte Bulegoan.

**Heldutze frogak**

• LH 1 titulua (edozein ezpezialitate) eskuratzeko azterketa libreak egiteko matrikula epea: apirilaren 12ra arte.

**Lana**

• Donostiako Udalak bi basozain lanpostu kaleratu ditu.

Epea: apirilak 10.

• Errenderiko Udalak: informatika eta antolakuntza teknikaria. Epea: apirilak 5.

**Soldadutza / objezioa**

\* Aurten 17 urte betetzen dituztenei, eskutitz bana bidali zaie Udaletxetik, alizatzeko epea ekainaren 30era bitartean dutela jakinaraziz. Donostian, Loiola Auzoan, egin behar dira. Alegazioak azaldu eta prorroga eskatu behar dutenek, alizatzear bat aurkeztu behar dituzte. Objezioa egin nahi dutenek, berriz, lehenengo Gobernu Zibilerara joan eta,

objetore papelak egin ondoren, alizatzera joan behar dute.

**Bekak**

• Udan frantsez edota ingeleseko ikastaroak egiteko beka deialdia, BBBeko 3. maila, UBI, 2LH eta IEEko 2. zikloko ikasleei zuzenduak. Estatu Batuetan, Ingalaterran, Kanadan, Irlandan edo Frantzian. 94-95 ikasturtean deialdi orokorreko bekario izatea ezinbestekoa da. Epea: apirilak 12.

**Ihardunaldiak**

• Kontzientzi Eragozpenari buruzko ihardunaldiak. Donostian, apirilaren 6tik 8ra, Miramar Jauregian. Matrikula: 15.000 PTA, Gazte Txartelarekin 7.500.

**"Zaharrak eska-  
porik ez, gazteak  
segurantzarik ez"**


**PATXI ZUBIZARRETA  
"EZTIA ETA OZPINA"**



**Informazio gehiago:  
GAZTE ZERBITZUA  
Tfnoa: 77 00 65**

# GERO ETA GEHIAGO GARA!

*Eskerrik asko!*



Ikasturtea	2 urteko ume guztiak	Gelak	Ikastolan matrikulatuak	%
1992/93	174	3	45	26
1993/94	182	3	48	26
1994/95	165	4	56	34
1995/96	179	5	75	42

**HAURRAK EUSKALDUNAK, AUTONOMOAK ETA SOLIDARIOAK  
IZAN DAITEZEN ARI GARA LANEAN.**



SAN FRANTZISKO XABIER IKASTOLA

# IKER

SUKALDE ETA BAINU ALTZARIAK



FAGOR 



## Gure ezberdintasuna

Gure sukalde altzarien edertasuna eta diseinua base sendo batetan oinarritzen dira.

- Sukalde batek bizitza osoa irauteko eginda egon behar dela dakigulako.
- Etxeko altzarien artean traturik gogorrena daukatela dakigulako.
- Estetikaz gain, iraunkortasuna eta praktikotasuna bilatzen dela ziur gaudelako.
- Guzti hau zure beharretara egokitzeko zerbitzu onena merezi duzulako.

**Hauxe da gure ezberdintasuna: edertasuna iraunkorrago egitea, gogorra ederrago egitea. BETIRAKO.**

## SUKALDE ERAKUSKETA

Udala Plaza, z/g  
ARRASATE • Tfnoa: 79 00 43

## BAINU ERAKUSKETA

Zarugalde kalea, 52  
ARRASATE • Tfnoa: 79 99 42